

PYRENAICA

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA | FEDERACIÓN VASCA DE MONTAÑA



ÉCRINS

Mendata eta Sakonetako flyscha | Sanabriako zeharkaldia | Mallo Gorreta y Gorreta de los Gabachos
La Olla de Núria | Las montañas del Rif | Kirguistán | Chamonix-Zermatt eskiekin
Nire mugen gainetik | Azken poeta | 10 cumbres: Anboto | Nuevos horizontes



Suscríbete a / Harpidetu zaitez

PYRENAICA



Año 2026 (4 números / zenbaki)
Prezioa: 18€

Ingresar el importe en
la c/c ES24 3035-0072-00-0720030006 de Laboral Kutxa
y envía a contacto@pyrenaica.com:
Nombre, DNI, domicilio, teléfono y correo electrónico.

Laboral Kutxako ES24 3035-0072-00-0720030006 k/k
dirua sartu eta
contacto@pyrenaica.com helbidera bidali:
Izen deiturak, NAN zenbakia, helbidea, telefonoa eta posta
elektronikoa.

LEHIAKETAK · CONCURSOS

XLIII CONCURSO DE ARTÍCULOS DE MONTAÑA (2026)

Participan los artículos en euskera o castellano que se publiquen en Pyrenaica durante 2026, seleccionados entre todos los recibidos. Los artículos han de aportar novedades sobre lo publicado en cualquier medio y ajustarse a la normativa de Pyrenaica (ver en www.pyrenaica.com). Serán premiados el primer, segundo y tercer clasificados.

XLIII MENDI ARTIKULUEN LEHIAKETA (2026)

2026an zehar Pyrenaican euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzi eta argitaratutako artikuluek parte hartuko dute. Artikuluak originalak izatea baloratuko da eta Pyrenaicaren arauekin bat etorriko dira (ikus www.pyrenaica.com). Lehenengo, bigarren eta hirugarren sailkatuak sarituak izango dira.

XLIV CONCURSO DE FOTOGRAFÍA DE MONTAÑA (2026)

Participan las fotografías que se publiquen en Pyrenaica durante 2026, excepto las que forman parte de artículos. Se enviarán como máximo cuatro fotografías digitales no publicadas en otro medio. Tamaño: 18 cm en su lado más largo. Resolución: a 300 ppp/dpi, espacio de color RGB. Formato de archivo: jpg. No se interpolarán los archivos ni se añadirán máscaras de enfoque. Serán premiados el primer y segundo clasificados.

XLIV MENDI ARGAZKIEN LEHIAKETA (2026)

2026an zehar Pyrenaican argitaratuko diren argazkiek parte hartuko dute, artikuluetan agertzen direnak izan ezik. Gehienez lau argazki bidaliko dira beste komunikabide batean argitaratu gabeak. Tamaina: 18 cm bere alderik luzeenean. Erresoluzioa: 300 dpi-tan, RGB kolore-espazioa. Artxibo-formatua: jpg. Ez dago artxibategiak tartekatzerik ezta enfoketarako maskarak gehitzerik ere. Lehenengo eta bigarren sailkatuak sarituak izango dira.

ENVÍO DE ARTÍCULOS Y FOTOGRAFÍAS

INCLUIR: Nombre y Apellidos del autor/a, dirección, email y tfno de contacto.
ENVIAR A: contacto@pyrenaica.com (Asunto: Concurso Pyrenaica) ó a: Pyrenaica, Julián Gaiarre, 50-trasera. 48004 Bilbao.

Los trabajos recibidos quedarán en propiedad de Pyrenaica y no podrán publicarse en otro medio hasta su devolución. Los premios se entregarán en la Gala del Montañismo Vasco de 2027. La participación en el concurso implica la aceptación de estas bases; las dudas serán resueltas por el Jurado.

ARTIKULU ETA ARGAZKIEN BIDALKETA

Izen-deiturak, helbidea, e-posta eta harremanetarako telefono zenbakia.
BIDALI: contacto@pyrenaica.com (Gaia: Pyrenaica Lehiaketa) edo: Pyrenaica, Julian Gaiarre, 50 trasera. 48004 Bilbo.

Aurkeztutako lan guztiak Pyrenaica aldizkariaren jabetzapean geratuko dira, beste edozein hedabidetan argitaratzerik egongo ez dela, harik eta itzuliak izan arte. Epaimahaiaren erabakia eta sari banaketa 2027ko Euskal Mendizaletasunaren Galan egingo da. Lehiaketan parte hartzeak berak, honako oinarri hauek onartzen direla adierazten du. Oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantzak Epaimahaiak ebartziko ditu.


PYRENAICA^k

Te oferta la
Eskaintzen dizu

Historia testimonial del Montañismo Vasco

45€
(tres tomos/hiru liburuki)

Tres tomos escritos por **ANTXON ITURRIZA**^k idatzitako hiru liburuki



TOMO I:
El descubrimiento de
la montaña (1848 - 1936)
Páginas 240 orrialde

TOMO II:
De los Pirineos
al Himalaya (1939 - 1980)
Páginas 284 orrialde

TOMO III:
Tiempos modernos .
El Alpinismo del siglo XXI
Páginas 240 orrialde

Ingresar el importe en la c/c 3035-0072-00-0720030006 de Laboral Kutxa
y envía a contacto@pyrenaica.com:
Nombre, DNI, domicilio, teléfono y correo electrónico.

Laboral Kutxako 3035-0072-00-0720030006 k/k dirua sartu
eta contacto@pyrenaica.com helbidera bidali:
Izen deiturak, NAN zenbakia, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.

Más información / informazio gehiago:
www.pyrenaica.com

Montañas cercanas y lejanas



Gertuko eta urrutiko mendiak



- 5** EDITORIAL · EDITORIALA
- 6** MENDITXIKI: MENDATA ETA SAKONETA
Mikel Arrizabalaga
- 8** SANABRIAKO ZEHARKALDIA
LAU EGUNEKO ABENTURA,
IZOTZAK MOLDATUTAKO MENDIETAN ZEHAR
Iván Ruiz
- 14** MALLO GORRETA Y
GORRETA DE LOS GABACHOS
Jokin Txapartegi
- 18** LA OLLA DE NÚRIA
Nagore Salcedo y Eduardo Corrales
- 22** MONTAÑAS DEL RIF
Txomin Uriarte

- 30** GR 54 – TOUR DE LOS ÉCRINS
UN ESPECTÁCULO ALPINO
Begoña Fernández y Paulo Etxeberria
- 40** ATRAVESANDO LAS MONTAÑAS ALAY
EN KIRGUISTÁN
Jose María Torres
- 50** FOTOGRAFÍA
Josu Fernandez Varona y Juan José Lopez Azurmendi
- 52** CHAMONIX-ZERMATT
ALPEETAKO ESKI ZEHARKALDIRIK KLASIKOENA
Aitor Oiarbide
- 60** NIRE MUGEN GAINETIK
Josu Merino
- 64** "AZKEN POETA"
BALELLAZA ORRATZAK - BISAURIN
Karlos Aretxabaleta "Txapel"

Beste diziplinak eta historia



Actualidad Berriak



- 68** 10 CUMBRES (III): ANBOTO
Javier Arostegi, Arturo Apraiz y Luis Miguel Martínez-Torres
- 72** NUESTRA HISTORIA (XI)
NUEVOS HORIZONTES
Antxon Iturriza
- 74** SUA EUSKAL HERRIA BILDUMA
OTRA FORMA DE HACER PAÍS
Argiñe Areitio
- 76** EUSKAL MENDIZALETASUNAREN GALA

- 78** MENDI LASTERKETAK
Alberto Mella Garate
- 82** NOTICIAS EMMOA ALBISTEAK
- 83** EMF BERRIAK · NOTICIAS FVM
- 88** MEKNF BERRIAK · NOTICIAS FNDME
- 89** PUBLICACIONES · ARGITALPENAK
- 90** AUDIOVISUALES · AUDIOBISUALAK
- 91** XAVIMOUNTAIN

PUBLICACIÓN TRIMESTRAL DE
EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Se publica desde 1926

OCTUBRE-NOVIEMBRE-DICIEMBRE
N.º 301 - 4ª de 2025

Edita: Euskal Mendizale Federazioa

Presidente: Ricardo Hernani

Director: Paulo Etxeberria Ramírez

Depósito Legal: BI-858-1979
ISSN: 0212-5676

© PYRENAICA

Equipo de Redacción: Begoña
Fernández, Ioritz Gonzalez, Iñigo
Jauregui, Xabi Mujika, Iñigo Santxo
e Iratxe Osoro.

Administración: Gotzone Rodríguez
Redacción, Administración y Publicidad:
Julian Gayarre, 50 - 48004 Bilbao
Teléfono: 944 598 102

Horario: De lunes a miércoles
de 16:00 a 19:00 horas.

Diseño, maqueta y preimpresión: SUA EDIZIOAK

Imprime: Leitzaran Grafikak

Embolsado: Publimark



E-mail: contacto@pyrenaica.com

[@RevistaPyrenaica](https://www.facebook.com/RevistaPyrenaica)

[@revista.pyrenaica.aldizkaria](https://www.instagram.com/revista.pyrenaica.aldizkaria)

La propiedad intelectual y el copyright de los textos y fotografías pertenecen a sus autores/as por lo que, salvo acuerdo expreso con ellos/as o con Pyrenaica, queda prohibida toda reproducción total o parcial de los mismos.

Testu eta argazkien jabetza intelektuala eta copyright-a egiteenak dira, beraz egite edota

Pyrenaicaren baimenik gabe, debekatuta dago artikuluen zati baten edo erreproduzio osoa egitea.

Trek al valle de Langtang y lagos de Gosaikund

[Nepal]

FECHAS: del 25 de marzo al 9 de abril.
DURACIÓN: 16 días.
GRUPO: 6 a 16 personas + guía.
DÍAS DE TREK: 10.
NIVEL DEL TREK: 2**
ALOJAMIENTO DURANTE EL TREK: Albergues.
SALIDAS: MAD y BCN.
PRECIO: 2.180 € + tasas aéreas*.

*Consultad las tasas en nuestras oficinas.

**Leed el apartado correspondiente en la hoja de condiciones.

El trek del valle de Lantang y lagos de Gosainkund en su conjunto es una de las caminatas más accesibles y gratificantes para introducirnos en el Himalaya. Esta región, situada al norte de Katmandú y fronteriza con el Tíbet, está englobada dentro del Parque Nacional del Lantang, el primero que se creó en Nepal en 1976.


Durante diez días caminaremos primero por el valle de Lantang, en donde comenzaremos atravesando bosques para más arriba en el valle poder ver glaciares y montañas de más de 7000 metros de altitud, todo ello salpicado de aldeas de estilo e influencia tibetana y habitantes de la etnia Tamang.

Tras esta primera incursión continuaremos hacia los lagos de Gosaikund, situados a 4400 metros. La leyenda cuenta que fueron creados por Shiva, y por ello es un lugar sagrado de peregrinación tanto para hinduistas como para budistas.

En algunas etapas podremos contemplar las cumbres del Langtang Lirung o del Ganesh Himal, ambos sobrepasando ampliamente los siete mil metros. Nos alojaremos en lodges (albergues) de las aldeas por las que pasaremos y de esta manera podremos observar de cerca el día a día de la vida rural en Nepal.

ITINERARIO

- Katmandú
- Syaubresi
- Lama hotel
- Langtang
- Kyanjin Gompa
- Kyanjing Ri
- Bamboo lodge
- Thulo Syabru
- Shin Gompa
- Lago de Gosainkund
- Laurebina pass
- Ghopte
- Tharepani
- Melanchigaon
- Katmandú ←



banoa
Viajes

www.banoa.com

BILBAO.
Tel.: 94 435 5119
e-mail: bio@banoa.com

BARCELONA.
Tel.: 93 318 9600
e-mail: bcn@banoa.com

HITOS

En la montaña, un camino demasiado ancho y marcado puede llegar a quitarle interés a una travesía o a una ascensión. Pero unos pocos hitos bien puestos, por ejemplo, en una ladera pedregosa de orientación complicada suelen ser muy agradecidos. Como lo son las pautas y formas de hacer una revista como Pyrenaica, aprendidas de las personas que la han dirigido en los cuatro años en los que he formado parte de su equipo de redacción: Iván Ruiz y Luisa Alonso. Como botón de muestra de ese buen hacer, tenemos en la actualidad un numeroso grupo de personas publicando desinteresadamente artículos de todo tipo en esta revista.

En esta *pinchia* ladera encontramos también hitos colocados por la Euskal Mendizale Federazioa, promotora de esta publicación. En este sentido, podemos apuntar lo expresado por nuestro presidente Ricardo Hernani en el editorial del número 298: la federación, Pyrenaica incluida, debe trabajar para todas las disciplinas del ámbito de la montaña, con un especial enfoque en el montañismo de base: el día a día (de domingo a domingo, podríamos decir).

Además, Pyrenaica va a seguir abierta a colaboraciones relacionadas con las ciencias (naturales y sociales) y el arte en la montaña, escritas por personas federadas o de otros ámbitos. Consideramos que el conocimiento del medio en el que nos movemos y los sentimientos que éste produce enriquecen la visión de las personas que transitamos por esos entornos.

Entrando ya en materia, en este número proponemos un paseo a lo largo del *flysch* de la costa guipuzcoana, una travesía en la Cordillera Cantábrica, diferentes ascensiones en el Pirineo aragonés y en el catalán, un viaje a las montañas del Rif, una travesía de varios días en los Écrins, una aventura en Kirguistán, una travesía clásica de esquí de montaña y unas vías de escalada en los Alpes, algunas reflexiones sobre el hecho de escalar, unas clases prácticas de geología en Urkiola y un poco de historia del montañismo. Además, las secciones habituales de fotografía, noticias, entrevistas, publicaciones, audiovisuales y un toque de humor.

¡Que disfrutes de los contenidos!

DIRECTOR DE
PYRENAICA

PYRENAICAKO
ZUZENDARIA



Paulo Etxeberria Ramírez

MUGARRIAK

Mendian, markaturik dagoen bide zabal batek interesa ken diezaioke zeharkaldi edo igoera bati. Baina, ondo jarritako mugarri gutxi batzuk, adibidez, orientazio korapilatsua duen eta harriz joserik dagoen mendi-hegal batean, eskertzeoak izaten dira. Mugarriak nola, halakoak izan dira Pyrenaicaren jarraibideak eta moduak, erre-dakzio-taldeko kide izan naizen lau urteetan, aldizkaria zuzendu duten pertsonengandik ikasiak: Iván Ruiz eta Luisa Alonso. Haien lan onaren froga modura, gaur egun jende askok argitaratzen ditu, eskuzabal, hainbat jardueri buruzko artikulak aldizkarian.

Mendi-hegal horretan, argitalpen honen sustatzaile den Euskal Mendizale Federazioak jarritako mugarriak ere presente daude. Zentzu horretan, gure presidente Ricardo Hernanik 298. aleko editorialean idatzi zuena aipatu nahiko nuke: federazioak, Pyrenaica barne, mendiko diziplina guztien alde lan egingo du eta arreta berezia eskainiko die eguneroko mendizaleei (esan genezake igandetik igandera dihardutenei).

Gainera, mendiko zientziez (naturalak eta sozialak) eta artez elikaturiko kolaborazioak argitaratzen jarraitu nahiko luke Pyrenaicak, federatuek edo beste esparru batzuetakoek idatziak. Izan ere, gure jarduerak egiten ditugun inguruneak ezagutzeak eta ekartzen dizkiguten sentimenduek gure ikuspegia aberatsago egiten dute.

Gaiari helduz, ale honetan honako artikulak hauek proposatu ditugu: paseo bat Gipuzkoako kostaldeko *flyshean*, zeharkaldi bat Kantauriar mendikatean, hainbat igoera Aragoiko eta Kataluniako Pirinioetan, bidai bat Rifeko mendietara, zeharkaldi bat Écrins mendigunean, abentura bat Kirgizistanean, mendiko eskiko zeharkaldi klasiko bat eta eskalada-bide batzuk Alpeetan, eskalatzeari buruzko gogoetak, geologiako eskola praktikoak Urkiolan eta mendizaletasunaren historia apur bat. Gainera, argazkigintza, albisteak, elkarriketak, argitalpenak, ikus-entzunezkoak eta umore ukitu bat.

Gozatu ale honetako edukiez!

TESTUA ETA ARGAZKIAK



Mikel Arrizabalaga
(Donostia-Eibar, 1957)

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulua eta kolaborazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako mendietan ibilia da.

Itziarko talaia

MENDITXIKI - GIPUZKOA MENDATA ETA SAKONETA

Zumaiak, Itziarrek, Debak eta Mutrikuk osatzen dute Euskal Kostaldeko Geoparkea, eta haren zati interesgarrienetako batean murgilduko gara, paisaia protagonista bakarra den lurretan, hain zuzen ere. Lau kilometro luze dituen ibilbide honetako paisaia liluragarria da. Bertan, Mendatako portuari lotuta zegoen Itziarko Talaia ere bisitatuko dugu, labarren ertzetik aurrera egiten dugun bitartean. Zumaiaitik Mendatako puntaraino hedatzen den kosta zati honetan "flysch" egiturak aurkitzen dira, Erdi eta Goi Kretazeoko kareharriz, margez eta, neurri txikiagoan buztinez osatuak. Ibilbide erraza da eta ondo balizatua dago; Gipuzkoako Biraren (GR-121) marra zuri-gorriek eta, bereziki, inguru hau zeharkatzen duen PR-Gi 5001aren zuri eta horiek erakutsiko digute zein bide jarraitu behar dugun.

Ibilbideari hasiera emateko abiapuntu desberdinak ditugu: Elorriaga auzoa, Errota Berri jatetxea edo Itxaspe auzoa. Gaurkoan, azken honetatik gertu dagoen

aparkaleku txikitik abiatuko gara. Mendatako kalara jaitsi aurretik, Mendatagainako muinora igoko gara horretarako bereziki landutako bidetik. Ikuspegi paregabea

duen begiratoki honetatik egingo dugun bidea ikusteaz gain, Kantauriko marearte-ko zabalguneko handienetariko batez gozatzeko geldiunea egingo dugu.

Etorri garen bidetik atzera egin eta, aparkalekuaren ondoan dagoen hesia pasa eta gero, porlanezko pistan barna jaisten hasiko gara. Lehen bihurtunera heldu eta ezkerretik, zelai txiki batean marrazten den xenda hartuko dugu. Egurrezko zubitxo batek Mendatako erreka gainditzen lagunduko digu. Aurrera eginenez Mendatako kalara gerturatuko gara eta flyscharen lehen irudia izango dugu ikusgai. Geoparkean dagoen flyscharen garrantzia eta irudiak zabaldu zirenetik, paraje hauek bisitari ugari jaso izan ohi dituzte. Honek orografian eragin negatiboa izan du, bidearen zenbait tarterk higadura handia jasan dute eta horren ondorioz, bide berri bat ireki da zenbait tartetan.

Garai batean, Zentral Nuklearra egin nahi izan zuten hemen, eta, zorionez, herritarren presioagatik lortu zen gaur egun gozatzen dugun ingurune paregabe hau zegoen bezala uztea.

Mendatagainari bizkarra eman eta aurrez aurre izango dugun aldapa txikiari aurre egingo diogu moldatutako bide horietako batetik. Gain txiki batera heltzean,

bide nagusia utzi eta eskuinetik zabaltzen den maldan metro batzuk gorago, Itziarko Talaia izandakoaren hondarrak ikusiko ditugu. Eta, bertan, talaiari buruz azalpen hau irakurriko dugu: «Bailearen arrantza Erdi Arotik jarduera garrantzitsuenetako izan zen euskal kostaldean. Inguruko herrien artean egiazko lehia izaten zen balea nork harrapatuko, eta itsasoan zetazeoa bistaratzeko zen lehen urratsa lasterketan ateratzeko. Talaia hau, Mendatako portuari lotuta zegoen. Itziarko biztanleek eta Itxaspeko baserriek abantaila txiki bat zeukaten dorre honetako seinaleak ezin baitziren bistaratu Deba, Mutriku eta Ondarroako herrietatik».

Balearik ez dugu hemendik begiztatuko; beraz, maldan igotako xendatik bide nagusira itzuliko gara. Aurrera segi eta berehala iritsiko gara Sakonetako lurretara. Labarren gainetik marrazten den xendan barrena itsas ondoraino jaitsiko gara. Inork nahi izanez gero, Sakonetako puntara igotzeko aukera izango du, baina betiere kontu handiz. Zubitxo batek Sakonetako erreka gainditzen lagunduko digu eta metro batzuk aurrerago atsedengune bat ikusiko dugu. Garai batean, Zentral Nuklearra egin nahi izan zuten hemen, eta, zorionez, herritarren presioagatik lortu zen gaur egun gozatzen dugun ingurune paregabe hau zegoen bezala uztea.

Atsedena hartu aurretik, artadi eta baratze baten ondotik marrazten den bidetik



aurrera egingo dugu Portutxikiko behatokia iristeko. Lurraren historiako pasarteak gordetzen dituen paisaia ikusgarria ikusiko dugu begien aurrean. Panoramika zabala bezain erakargarriaz gozatu eta gero, etorritako bidetik abiapuntura itzuliko gara, merezi du Sakonetan pausatu eta itsasertzeko babestutako biotopo hau gertuagotik ezagutzea, betiere kontuan izanik erreserba gune batean gaudela. Horretarako, bidean dauden informazio-tauletan agertzen den araudia irakurri eta errespetatzea ezinbestekoa da.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Wikiloc:



Sakonetako flysch



TESTUA ETA ARGAZKIAK



Iván Ruiz Rotaeché
(Amurrio, 1982)

Pyrenaicako erredakzio taldeko kide eta zuzendari ohia. SUA argitaletxearen "Las Mejores Rutas en BTT" liburua eta Berria egunkarian mendi bizikleta artikulak argitaratu ditu. Horrez gain, Euskal Herriko mendietan ibiltzea du gustuko, oinez zein bizikletaz.

SANABRIAKO ZEHARKALDIA

LAU EGUNEKO ABENTURA, IZOTZAK MOLDATUTAKO MENDIETAN ZE HAR

Elezaharrak dio, aspaldi, Sanabriako lakua dagoen tokian, *Valverde de Lucerna* izeneko herria zegoela. San Juan bezperako gau euritsu batean, erromes bizartsu bat herrira iritsi eta babes eske joan zen, atez ate. Saiakera egin arren, lehenengo eta bigarren etxeetan ez zion inork atea ireki, herriaren amaieran zegoen labe batera iritsi zen arte. Han, ogia egiten ari ziren bi anderek sartzen utzi eta ogia eman zioten. Alde egiterakoan, bizitza merezi zuten bakarrak haiek zirela esan zien, labetik ez irteteko eskatuz. Kanpoan zegoela, makilarekin lurra kolpatuz, honela esan zuen:

"Hemen iltzatuko dut makila, hemen ur zurrusta irten dadila".

Ondorioz, ura borborka atera zen *Valverde* herria urpean utziz, bertatik, labea soilik salbatu zen. Honela eratu zen gaur egun Sanabriako lakuan dagoen uharte txikia.



Xendak behe basoan zehar aintziretara garamatza

Estatuko laku natural handiena da Sanabriako lakua, eta orain dela 100.000 urte bertan aurkitzen zen glaziarrean du jatorria. Lakua Zamorako ipar-mendebaldean dago kokatua, Sanabriako eta Segundera eta Portoko mendilerroen parke naturallean. Izotzak urteetan zehar eraldatutako

ingurunea da. Honen ondorioz, "U" formako ibarrak, morrenek sortutako harkaitz eremuak, eta 20 urmael inguru aurkitu ditzaizkegu parkean, beste formazio geologiko batzuen artean.

Guzti horrek, berezia egiten du paisaia mota hau, ederra oso. Parkeko aterpe li-

breen baldintza egokiek zeharkaldiak egiteko inguru aproposa izatea ahalbidetzen dute. Horretaz gain, Zamora zein Galiziako mendi altuena bertan dago, guzti horrek zeharkaldi eder bat antolatzeke aukera eskaintzen digu.

Jarraian, parkeko txoko interesgarri gehienak ezagutzera eraman gintuen zeharkaldiaren nondik norakoak datoz xehatuak.

Arbelezko teilatua duten etxeak dira inguru honen bereizgarri



1. EGUNA: GALENDETIK, LA CABRERAKO MENDILERRORA.

20 km, +1000 m, -40 m

Goizean goiz hasi dugu abentura, Zamoran aurkitzen den Galende herriraino iritsi gara. Ez dugu plan zehatzik, beraz, lasaitasunez hartu dugu eguna eta eguerdi aldera iritsi gara herrira. 12 kilo inguru dituen motxila sorbalda gainean, prest gaude inoren laguntzarik gabe mendian zehar 4 egun emateko.



Herri lasaia da Galende, nahiz eta Sanabriako lakuaren hurbiltasunak jendea erakarri ohi duen. Errepide ondoan utzi dugu kotxea, iturri batetik gertu. Jarraian, metro gutxira, zeharkalditik bueltan primeran etorriko zaizkigun saltoki txiki bat eta taberna batekin egin dugu topo. GR 84 "Sanabriako mendia" ibilbidearen margo zuri-gorriak izango dira gure gidariak etapa osoan zehar.

Herrian behera abiatu, Tera ibaiaren zeharkatu eta antzinako Galende-Pedrazales bidearen hasiera topatu dugu bidegurutzean. Bide eder honek, hariztian barrena Pedrazales herrira garamatza. Bertan, arbelezko teilatua duten ohiko etxeak ikus daitezke, inguru honetako bereizgarri. Bide bera jarraitu dugu hurrengo kilometroetan, Forcadura ibaiaren zeharkatu duen Sobraoko zubiarekin topo egin dugun arte. Hau igaro eta Vigo de Sanabrian sartu gara.

La Iglesia auzoa lerro zuzen bat da, eta hark gidatu gaitu Vigoko elizara. Masusta goxo batzuk topatu eta gosea asetzeko geldiunea egin dugu hemen, hauekiko

ahultasuna sentitzen dugula, kar kar... Arbelezko teilatudun etxeen artean isiltasuna da nagusi eta sakanaren norabidetik ipar-mendebalderantz doan pistan bira-

Forcadurako arroila estutzen doan neurrian, harriak bideaz nagusitzen dira



tu eta jarraian Ermita auzoa zeharkatuko dugu zenbait metro aurrerago.

Iturri baten ondoan, zubi bat zeharkatu eta isurialdez aldatu gara, Forcadurako arroilean gora egiteko. Arroila estutzen doan neurrian, lurrezko xenda, harri soltezeko bide bilakatzen doa, ibilbideari emozioa gehituz. Beste behin, arroka batzuetatik igaro eta erreka zeharkatu ondoren, Forcadurako korta aterpe irekira iritsi gara. Egoera larri bati aurre egiteko ondo etor daiteke, baina gaua igarotzeko baliabide gutxi dituela esango nuke.

Altuera hartu ahala, basoak desagertuz doaz. Harana bitan banatzen da eta ezkerreko norabidea hartuz, Arrainen aintzira turistikora iritsiko gara. Hemen, artzain txakur bat bere ardurapean dauden behien zaindaria dabil; hobe dugu mugimendu arrarorik ez egitea behiak beldurtu ez daitezen, ez badugu txakurra oldartzerik nahi.

"Glaziar jatorriko Tera ibaiaren haranaren gaineko begiratokia ezin hobea da"

GR ibilbideak mendian gora jarraitzen du, honek, Behorren aintzirara garamatza. Urmaelaren atzean, izen bera duen aterpea aurkitu dezakegu. Hasiera batean, lehenengo etapako "hotela" hau izatea pen-



Bañako lakua Monumentu Naturala

tsatu dugu baina azkenean iritziz aldatu behar izan dugu: oso egoera onean aurkitu arren, bertako iturria lehorra dago eta gauean ondo hidratatzea funtsezkoa da.

Bidean aurrera egin ahala, belardi baten erdian *Vallinón* erreka aurkitu dugu, horixe zen behar genuena; beraz, gure kanpalekua hemen finkatu dugu. Kanpin-denda muntatu aurretik, La Cuchilla erreka iturrira hurbiltzeko, 3 kilometro inguruko joan-etorria egin dugu. Aipatu beharra dago, glaziar jatorriko Tera ibaiaren haranaren gaineko begiratokia ezin hobea dela.

2. EGUNA: LA CABRERA ETA SEGUNDERA MENDILERROAK ZEHARKATUZ

26 km, +900 m, -1200 m

Giro hotzak esnatu gaitu bigarren egunean eta antzigar geruza batek estaltzen dugu guztia. Zerua oskarbi ageri da, baina aurrerago ikusiko dugu kontua ez dela nola has-

ten den eguna... nola bukatzen den baizik. *La Plana* mendiaren magaletik gora egin dugu, Montrabea sakanaren amildegia aurreraz aurre topatu dugun arte. Eskuinean dugun mendilerrotik gertu, itxura bitxia duten arroka batzuk ageri dira; "3 astoak" izenez ezagutzen direnak, iman bat balira bezala erakartzen gaituzte. Motxilak lurrean utzi, eta korrika batean haiengana hurbildu gara gailurra zapaltzeko asmoz.

Ondoren, *Cabrera* mendilerroa ipar-mendebaldera jarraitu dugu. *Fueyo Grande* aintziraren ondotik igaro eta *Alto de Riopedro* mendian gora goazela, espero ez genuen Cadabal amildegi ikusgarriarekin egin dugu topo. Une honetan, hodeiak mendia irensten hasi dira, euria datorrela dirudi, zalantzi gaude, ez dakigu zer egin; mendilerroa jarraitu edo Tera ibaiaren haranera joan. Azkenik, lehenengo aukera hautatu dugu. Tontor hurbil eta deigarri bat alde batera utzi, eta *Picón* gailurrera (2079 m) goaz zuzenean, honek

haran sakonak ditu bere bi isurialdeetan. Horietako batean *Lagunalloko* aintzira dago, eta bestean *Bañako* lakua. Azken hori monumentu naturala da. Urrutian, gris kolore ezberdinetako arbelezko harrobi erraldoiak gaude ikusgai.

Eguraldi ona mantenduko dela dirudi, beraz, Ahateen aintzira eta *Peña Vidulante* atzean utzi, eta *Morena Cavada* atakara jaitsi gara (1873 m), bertatik, *Surbia* mendira igotzeko. Konturatu garenerako, *Puertas* leporaino iritsi gara. A zer-nolako akatsa! Aldapa gogor bati aurre egin beharko diogu, hau igo ahal izateko aurretik ibilbidean zehar hartutako ahabi batzuk jan ditugu. Ez dute zer ikusirik dendan erosten ditugunekin, batzuetan bidetik irteteak baditu bere abantailak!

Esfortzu handia egin ostean, *Surbia* gailurrera (2116 m) iritsi gara; ondoren, lainoz inguratuta *Alto Ladeira da Medias* muinoa gainditu eta *Peña Negrako* arbel-geruzen artean tarterik teknikoarenarekin egiten



Monegueira haitza

dugu topo. Behin tontorrera iritsita, *Peña Trevinca* rako bidea pentsatu baino errazagoa iruditu zaigu. Galizia zein Zamorako mendirik garaienean gaude (2127m).

“Galizia zein Zamorako mendirik garaienean gaude”

Glaziar jatorrizko Tera haranaren ikuspegi ederraz gozatzen dugun bitartean, zuzenean iritsi gara *Trevinca* saroiria. Haranean gaudela, larre berdeen artean, xendak aurrera egiten du. Bertan, Trefazioko saroirian, iturria eta aterpea aurkitu ditugu (1595 m), eta datozen orduetan, horien babespean, ur-gortina iraunkor baten azpian atsedean hartu dugu.

3. EGUNA: URMAELEN ZEHARKALDIA 33 km, +550 m, -660 m

Iragarrita zegoen bezala, euritsu hasi da eguna. Euriak indarra galdu arte itxarotea besterik ez dago, eta hala, goiz erdia eman dugu aterpean. Ondoren, zirimiri ahul bategin haranean behera abiatu gara. Hortik gutxira, *Vega de Conde* aterpetik igaro gara, oso egoera onean dago eta urtegiaren beste aldean dago kokaturik. Pista ja-

rraituz, *Moncalvoko* ubidearen ondotik aurrera egin dugu, *Vega de Tera* aterpera iritsi arte. Aterpetik behera, 1959. urtean ekaitz baten ondorioz gainezka egin zuen presa dago; Ribadelago herria birrintzeaz gain, jende asko hil zuen gertaera hark.

Bertako pistatik ordokira igo gara (1765 m) eta pistak/bideak hegoalderantz bidatzen du, GR 84a alde batera utziz. Granitozko blokez inguratuta dagoen lautada handi batean barneratu gara. Pausoa arindu, eta azkar batean, oinak aireztatu eta bazkaltzera *Tejositurria* iritsi gara, txoko lasaia benetan.

Denbora labur batez pista jarraituz, mugarriek gidatutako bidexka itxi bat jarraituko dugu *Cuadroko* aintzirara iristeko. Leku ederra argazkiak egiteko, zeruaren urdina uretan islatzen dela aprobetxatuz. Xendak, behe basoan zehar behera eginez, *Mancaseko* aintzirara garamatza. Presaren horma estuaren gainera aurrera egin eta *Payón* aintzira inguratu ostean, pista nagusia topatu dugu bere atzean. Joan-etorriko zirkularra egin dugu, *Pico del Fraile* aterpea eta *Moncabrileko* plano inklinatua bisitatzeko (1550 m). *Moncabrileko* plano 50eko hamarkadan eraiki zen, 537 metroko desnibela eta kilometro eta erdi baino gehiagoko luzera ditu. Planoa *Moncabrileko* zentraletik ordokiko presetara eraikuntza materialak igotzeko erabili zen.

“Plano inklinatua Moncabrileko zentraletik ordokiko presetara eraikuntza materialak igotzeko erabili zen”

Pistara bueltatu eta mendebaldeko bidea jarraitu dugu. Aurrera egin eta *Matanosoko* aterpea bide ondoan aurkitu dugu; inguruko gehienak bezala egoera onean dago. Ondoren, *Garandones* aintzirara heldu gara eta jarraian, *Cárdenako* urtegi jaitsi gara; bertan aurkitu dezakegu *Cárdenako* sakanaren gainean kokatua dagoen izen bereko aterpea. Pena merezi du bisitak, behatoki ezin hobea baita.

Atsedena hartu ondoren, ibilaldi luze baten ostean, *Playa* izeneko aterpera joan gara, izen bera daraman urmaeletik gertu.



Bertako iturria lehorra dago, ur falta arazo bat izaten hasi da hemen guretzako... Aurrerago, *Puente Porto* urtegiaren harrizko hormaren azpitik erreka gaineko zubia zeharkatu eta Sanabriatar abelbidea jarraituz hego-ekialderantz goaz. Bide honek, mendian gora eginez *Pedrina* aintzirara garamatza (1725 m); zenbait metro aurrerago GR-84arekin elkartu gara eta *Peña Resbaladako* muinoa inguratuz *Los Gallegos* iturriraino jaitsi gara; eguneko helmugara.

Oraindik ez da bidaiaren amaiera iritsi, zeharkaldiko opari ederrena zain dugu. *El Cortello* izeneko eremuan, lautadatoko bat dugu, eta iparraldean, ikuspegi ona izan behar duela aurreikusten dugu. Beraz, ertzeraino hurbildu eta... hara!!!! Sanabriako lakuaren eta Tera, *Cárdena* eta *Segundera* sakanen parajea dugu ikusgai. Liluragarria!!!! Panoramika zoragarria be-

netan!! Harkaitzetan ilunabarraren kolore gorrixka ikusiz esango diogu agur egun eder honi.

4. EGUNA: SOTILLOKO MENDIETATIK GALENDERA ITZULERA 11 km, +20m, -570 m

Oraindik aurreko eguneko ilunabarreko bizipena buruan dugula, gure begiratokitik egunsentia ikusteko irrikitan esnatu gara. Goizean goiz, hotzari aurre egiteko ondo babestu eta harkaitz baten gainean eseri gara. Bertatik, *Segundera*, *Cárdena* eta Tera sakaneko harkaitzetan egunsentiko lehen argi izpiak jaso ditugu. Une magikoa, dudarik gabe.

Presarik gabe, kanpin denda eta lo-zakurak jaso eta mendilerroa jarraituz, behe ba-

soan ezkututzen den bidezidorretik ekialderantz abiatu gara. Behin Peña Bubela mendiaren lautada egin ondoren, altuera galdu dugu eta GR 84arekin elkartu gara. Hurrengo bidegurutzean, bide hau utzi eta Sanabriatar abelbidea jarraitu dugu.

Hasiera batean, bidea deserosoa da, bidean dauden harriak direla eta; baina gero, hariztian barneratzen da eta zuhaitzen itzalpean, hareazko zoruak bidea erosoagoa egiten du. Mapari esker, akats txikiren bat zuzendu eta *Peña Monegueira* harkaitz magikora iritsi gara.

Bertan, Galendera zuzenean jaisten den bidezidor estu eta bakartia hartu dugu. Gure ibilgailura iritsi aurretik, iturrian txukundu egin gara, etxera garbi bueltatzeko. Horrela, 4 eguneko abentura amaitutzat eman dugu. Zalantzarik gabe, goan betiko geratzen diren horietako bat.

Orduak eman ditzakegu Sanabriako lakuaren edertasuna miresten ilunabar zein egunsentiko argiekin




MALLO GORRETA Y GORRETA DE LOS GABACHOS

Existen montañas que, al ser contempladas desde la distancia, sobresalen por su hermosura; hay otras en las que la belleza no reside en ellas mismas sino en los paisajes que se contemplan desde su cima y, por último, están las que destacan por la espectacularidad del camino que lleva hasta ellas. Pues bien, el Mallo Gorreta forma parte de este último grupo.

De norte a sur, desde el Anie hasta Peña Forca, se extiende un cordal repleto de cimas y elevaciones del que emergen, si exceptuamos Orhi y Ezkaurre, los primeros dosmiles del Pirineo occidental. Como suele ser habitual en estas ocasiones, las más altas y prominentes (Hiru Erregeen Mahaia, Petretxema, Acherito, etc.) ensombrecen y alejan del foco a las que no alcanzan su altura. Es el caso de un pequeño macizo que, habitualmente, suele pasar desapercibido y que se halla integrado por tres cumbres: Gorreta de los Gabachos, Mallo Gorreta y Anzotiello. La ruta normal que conduce tanto al primero como al tercero de estos picos se realiza desde sus respectivos collados mientras que la que lo hace al Mallo Gorreta posee unos rasgos y personalidad únicas.

Croquis de la sección existente entre Mallo Gorreta y Gorreta de los Gabachos



TEXTO Y FOTOS



Jokin Txapartegi
(Bilbo, 2003)

Estudiante, amante de la montaña y del esquí. Sus pasiones se reparten entre la investigación, la fotografía, la escritura y el pirineísmo en el más amplio sentido del término. Así mismo le gusta "tresmiliar" y encadenar cimas del modo más creativo posible.

Estacionamos el vehículo al pie del barranco de Gamueta (1285 m, 0 h), a un paso de la vía asfaltada que comunica Zuriza con Linza y junto a la barrera que prohíbe el acceso a la pista que recorre el valle. Sin embargo, el sendero que debemos tomar comienza en esa misma carretera, pero un centenar de metros más adelante y en la otra margen del río. El repecho con el que se inicia es poco prometedor, pero pasados unos minutos la pendiente cede y es reemplazada por una loma herbosa. Girando hacia la derecha, ponemos rumbo al hayedo que tapiza las laderas (0 h 10 min), pero antes de sumergirnos en él nos unimos al camino balizado con marcas de pintura verde y amarilla que conecta la zona de Linza con el valle en el que nos encontramos. Como no deseamos retroceder hacia el paso del Caballo, seguimos de frente a través del bosque.

El itinerario que asciende por el valle es cómodo, está bien trazado y carece de grandes pendientes. Las marcas verdes y amarillas nos guían por el interior de la espesura hasta que, poco a poco, los árboles comienzan a clarear y desaparecer. Al alcanzar la cota 1500, nuestra ruta confluye con la pista que remonta la margen opuesta del arroyo. Toca continuar de frente siguiendo el barranco que ha excavado el río y que permanece seco la mayor parte del año. Poco antes de llegar a su cabecera, encontramos una pequeña pendiente que precede a un pastizal sobre el que reposa una borda utilizada por los pastores que frecuentan estos parajes (1630 m, 1 h).

El Mallo Gorreta posee unos rasgos y personalidad que lo hacen único

Llaneando esta vez, avanzamos en dirección a nuestro objetivo, que se eleva frente a nosotros. Mientras avanzamos, divisamos a su derecha la existencia de una gran depresión que constituye su único punto flaco, el lugar por el que nos disponemos a ascender, y que es conocido con el nombre de brecha de Gamueta. El trazado sigue siendo excelente y cómodo hasta llegar a la cota 1850 donde las balizas verde-amarillas giran a la



Vista de la canal

derecha buscando el paso de Anzotiello, la conexión con la Selva de Oza. Descartando esa opción proseguimos de frente, en dirección al collado de Gamueta. Una vez que entramos en el reino de la roca, no tardamos en alcanzar la base de la extensa pedrera que nos separa de nuestro siguiente paso clave: la brecha de Gamueta (2187 m).

El ascenso de la pedrera, se suba por donde se suba, resulta muy penoso porque carece de hitos indicadores y porque los deslizamientos continuos dificultan el avance. No obstante, lo más aconsejable es evitar la precipitación y esperar a las horas centrales del día porque la ascensión en diagonal por debajo de Anzotiello es suma-





mente incómoda. La roca de mayor calidad se localiza bajo las paredes de la izquierda, las correspondientes al Mallo Gorreta, y para llegar hasta ellas es preciso continuar por la senda normal, flanquear la pedrera y atacarla directamente en ascensión vertical o ligeramente por la izquierda.

No queda otro remedio que improvisar una ruta de ascenso y armarse de grandes dosis de paciencia. Finalmente, alcanzamos la brecha de Gamueta. A la derecha, un muro vertical de 15-20 m de altura que probablemente ronda el IV+ nos separa de la cima del Anzotiello; de frente, el Pirineo central en todo su esplendor y a la izquierda, nuestro objetivo inmediato: las Agujas de Gamueta y la canal en sombra que discurre entre ellas y que debemos remontar

para acceder a la meseta cimera de la que emerge el Mallo Gorreta.

Para ganar la base de la canal, iniciamos un flanqueo por un terreno roto y un tanto complicado. Aunque la exposición es relativamente baja, conviene no relajarse. Una vez en la base, comenzamos a ganar altura por una pendiente de roca descompuesta. Los apoyos y agarres existentes en las paredes laterales facilitan la progresión hasta que nos topamos con el primer obstáculo serio: un bloque empotrado en medio del corredor. Para superarlo, nos aproximamos al muro de la derecha es busca de un paso viable. La trepada, el tramo más técnico de toda la actividad, es breve y su dificultad no va mucho más allá del II grado. Tras ella, el pasillo se ensancha y las agu-

jas que se ciernen sobre nuestras cabezas forman una especie de galería. Seguimos adelante ascendiendo por la izquierda y cuando la situación lo requiere hacemos uso de las manos.

Después de progresar una decena de metros, accedemos a una sección de la canal tan angosta que la distancia entre las paredes es posible que no supere el metro. Es aquí donde hallamos dos nuevos bloques empotrados (I+). Para superarlos debemos extremar las precauciones porque se encuentran rodeados de piedra suelta. Por suerte, contamos con los numerosos apoyos que nos brindan las paredes.

Girando ligeramente hacia la izquierda, desembocamos en un segundo corredor más ancho que el anterior que se desvía



Panorámica desde la cumbre: Quimboa, Petraficha, Chipeta, Peña Forca y Alanos

hacia la derecha. Estamos muy cerca del final. Tras recorrer los últimos 15 m, salimos a la meseta cimera y cubrimos a pie la distancia que nos separa de los 2266 m de nuestro objetivo, el Mallo Gorreta.

Los apoyos y agarres existentes en las paredes laterales facilitan la progresión

Frente a nosotros, hacia el norte, se alza su hermano mayor, la Gorreta de los Gabachos (2268 m) y entre medias una cresta afilada que parece intransitable debido a la muralla rocosa que se extiende a uno y otro lado. Para llegar hasta ella la opción más habitual

suele ser descender desde el hito cimero en dirección noroeste e instalar un rápel de 12 metros para salvar el muro sobre el que se levanta la cima. La segunda opción consiste en avanzar por la cresta hasta la brecha que separa ambas cumbres y destrepar (II) por terreno bastante expuesto.

Debido al fuerte viento que soplabo aquel día y a la falta de material para rapelar, optamos por desandar el camino, retroceder por donde habíamos venido y regresar a la brecha de Gamueta. Una vez en este punto, descendiendo pegados a las paredes del Mallo Gorreta y bordeando su base oeste, accedimos a una grada de roca que nos condujo directamente y en diagonal directo a la Gorreta de los Gabachos. De ese modo, evitamos bajar toda la pedrera

y continuar por la vía normal del collado de Gamueta.

El descenso puede realizarse desde el collado de Gamueta (2154 m) por la vía normal que finaliza en el valle. Alternativamente, existe la posibilidad de ascender desde el collado a las laderas herbosas de la cumbre norte de la Gorreta de los Gabachos para, a continuación, emprender un descenso en diagonal y hacia la izquierda que nos conduzca a los pastizales que se extienden al pie del Chinebral de Gamueta y a la borda pastoril que mencionamos más arriba.

INFORMACIÓN ADICIONAL

Distancia: 14,5 km
Desnivel: 1280 m
Dificultad: Resalte de grado II, varias trepadas de I+

LA OLLA DE NÚRIA

El valle de Núria se encuentra situado dentro del Pirineo oriental, en el territorio municipal de Querolbs. Conforman un escenario de alta montaña amable con relieves ondulados, verdes prados y bonitas vistas panorámicas.

Históricamente, este valle fue un punto de paso entre la Catalunya Vieja y la Norte, marcando en la actualidad la frontera entre la comarca del Ripollés y la región francesa de la Alta Cerdanya.

En el año 2015 se constituyó el Parque Natural de las Cabeceras del Ter y el Preser.

La situación geográfica de este valle ha determinado la historia de Núria. Sus pastos

fueron objeto de transacción entre condes y monasterios, hecho que probablemente explica el origen del Santuario.

Como dato anecdótico decir que el nombre de Núria proviene del vascón, una lengua prerrománica hablada en la zona y que fue antecedente del actual euskera. En vascón Núria significa "lugar entre montañas".

Este valle es considerado un lugar estratégico dentro del montañismo catalán.

La Olla de Núria es una carrera de montaña de 21,5 km de recorrido. Un 72% del mismo se realiza por encima de los 2700 m de altitud, ascendiendo numerosas cimas que rodean al valle de Núria. El desnivel de esta carrera es de unos 1940 m positivos y negativos. Se presenta como un desafío

Bajando del Pic de Noufonts



TEXTO Y FOTOS



Nagore Salcedo Martínez
(Durango, 1981)

Eduardo Corrales Alejos
(Abadiño, 1979)

Médica psiquiatra apasionada de la montaña, el alpinismo y la espeleología, actividades que ha realizado en Euskal Herria, Pirineos, Picos de Europa, Sierra de Gredos y Alpes, entre otros. Miembro de los Clubs de Montaña Alpino Tabira y Ganerantz.

Ingeniero informático amante de las actividades de montaña. En los últimos años ha realizado numerosas ascensiones y travesías por Euskal Herria, Pirineos, Alpes y Tatra eslovacos. Miembro del Club de Montaña Alpino Tabira.

ideal tanto para senderistas experimentados como para amantes de la montaña en general.

Es una de las travesías más emblemáticas de los pirineos catalanes. Se trata de una ruta circular que ofrece una bonita experiencia, combinando naturaleza virgen, paisajes montañosos imponentes y una rica biodiversidad. Recorre el circo del valle enlazando todas las cumbres que lo conforman. Nosotros hemos ampliado la ruta clásica que da nombre a la competición de la Olla de Núria para hacerla aún más completa subiendo al pico Puigmal (2910 m) desde el collado de Fontalba. Es un recorrido destinado a personas con buena forma física ya que son unos 28 km y 2100 metros de desnivel. El terreno no presenta dificultad técnica.

Iniciamos la ruta desde el Santuario de Núria (1970 m), al que se puede acceder mediante un tren de cremallera desde la estación de Queralbs. Desde este punto existen varios itinerarios para subir andando hasta Núria, siendo el más conocido el Camí Vell (9 km, + 800 m).

Empezamos siguiendo el Camí de les Coves. Llegamos a una collada en la que hay un mirador (Creu d'en Riba, 1990 m) desde el que se pueden disfrutar de bonitas vistas del Santuario. Continuamos por la senda atravesando bosques y posteriormente una ladera agreste para entrar pronto hacia la profunda barranquera del torrente de Fontalba. Cruzamos este precioso valle para llegar a las praderas de la collada de Fontalba (2070 m), lugar donde existe un aparcamiento, punto de partida habitual para subir al Puigmal.

El terreno se vuelve más rocoso, cambiando el verde inicial por los colores cálidos de la roca, cada vez más rojizos

Ya en el tramo inicial podemos divisar varios rebecos corriendo por las laderas. La fauna y la flora del lugar son otro de los grandes atractivos, con la posibilidad de avistar especies como el rebeco o el águila real, y de contemplar una variada



Cima del Puigmal


vegetación que cambia según la altitud y la temporada.

En el collado ya llevamos 5 km y aproximadamente 300 m de desnivel positivo. A partir de aquí, comenzamos a ascender con pendientes cada vez más pronunciadas. Pasamos por Cim de la Dou (2457 m) y tras un pequeño respiro encaramos las pendientes más duras que nos llevan a Cim del Borrut (2670 m). Continuamos subiendo hasta el último tramo que se suaviza, llegando a la cima del Puigmal (2910 m). Hemos alcanzado ya el punto más alto de la ruta, pero apenas llevamos ascendida la mitad del desnivel (unos 1000 m). En esta cima hay una gran cruz, un vértice geo-

désico y mojones. Casi siempre hay gente, al tratarse de la montaña más mítica y afamada del Valle de Núria. De contornos romos, destaca sobre la amplitud de la meseta de la Cendanya. Las vistas sobre todo el valle y la cresta que circunda la olla son impresionantes.

Aún nos quedan 1100 m más de desnivel y bastantes kilómetros por delante. No obstante, estamos muy motivados, el paisaje es precioso y el lugar merece el esfuerzo. A partir de aquí, son continuos descensos a collados y ascensos a numerosas cimas, acumulando desnivel progresivamente.

Continuamos el recorrido para ascender al Pic Petit de Segre (2812 m) y después al Pic





de Segre (2843 m), disfrutando de unas vistas espectaculares. Según vamos avanzando el terreno se vuelve cada vez más rocoso, cambiando el verde inicial por los colores cálidos de la roca, cada vez más rojizos.

Descendemos hasta el coll de Finestrelles, donde nos cruzamos con una senda que baja al santuario de Núria. Muchos de los collados por los que pasamos tienen sendas que permiten bajar a Núria. Ascendemos por la falda de la montaña hacia la cima del Pic de Finestrelles (2828 m). En su traducción al castellano pasaría a denominarse “ventanas”. De hecho, desde esta cima se logró realizar la fotografía a más distancia registrada hasta el momento (443 km). Retratando desde ella el Barre des Écrins (4102 m) en los Alpes franceses.

Siguiendo la ruta pasamos por el Pic de Núria (2794 m), al que accedemos haciendo un pequeño desvío de la senda principal.

Puigmal destaca sobre la meseta de la Cendanya. Las vistas sobre el valle y la cresta que circunda la olla son impresionantes

Continuamos bajando al coll d'Eina para luego subir por empinadas pendientes al Pic D'Eina (2789 m). Ya vemos cómo vamos dando la vuelta a la Olla. Seguimos por la senda hacia la cima del Pic de Noufonts (2861 m), donde encontramos un buzón antes de alcanzar el mojón de piedras que marca su punto más alto. El paisaje es totalmente diferente en esta zona, adquiriendo cierto aspecto volcánico. Aprovechando las impresionantes vistas desde esta cima, decidimos hacer una parada para reponer fuerzas.

La existencia de nueve fuentes o manantiales donde brota el agua es el origen del nombre de esta cumbre. Estas surgencias bajo el coll de Noufonts (2665 m), dan lugar al torrente del mismo nombre que incorpora su caudal al de Núria.

Tras el merecido descanso bajamos un tramo de mucha pendiente hasta el collado de Noufonts y después subimos al Pic de Noucreus (2799 m). La senda que seguimos forma parte del famoso GR 11. Ya no tenemos mucho desnivel para alcanzar nuestra siguiente cima, el Pic de la Fossa del Gegant (2808 m). Esta es la cima más oriental a la que llegamos. El cordal continúa, pero nosotros retrocedemos unos metros hasta el collado para desviarnos a la izquierda ya que no queremos bajar directamente a Núria sin completar las últimas cimas de la Olla. Recorremos un nuevo cordal pasando por Cim Alt de les Arques (2792 m), Cim Baix



Valle de Núria

de les Arques (2782 m), Rocs Blancs (2783 m) y Puig de Fontnegra (2727 m). Para realizar este último tenemos que desviarnos. Tiene unas vistas preciosas del Cim de la Coma del Clot y Torreneules.

A partir de aquí el descenso se vuelve más pronunciado y perdemos altura con

rapidez. Pasamos por nuestras dos últimas cimas, el Pic de la Pala (2477 m) y el Puig de L'Àliga (2421 m), ambos con vistas sobre el santuario que se encuentra justo a sus pies. Continuamos bajando hasta alcanzar el Albergue Núria Xanascat al que llega el telecabina de Núria.

Hay un par de miradores en esta zona. Ya solo queda el último kilómetro hasta el santuario, que discurre por una pista cementada.

Una vez finalizada la ruta, sentimos la satisfacción de haber cumplido un reto que teníamos en mente desde hace tiempo y que nos ha permitido disfrutar de una zona del Pirineo que desconocíamos y que consideramos imprescindible para aquellos que desean conectar con la naturaleza. Combina esfuerzo, belleza y una profunda conexión con el entorno natural.

Vistas desde el cresterío



FICHA TÉCNICA:

Dificultad: Moderada-Alta.
Distancia total: 28 km.
Altitud mínima: 1960 m (Santuario de Núria).
Altitud máxima: 2910 m (Puigmal).
Desnivel acumulado: 2100 m.
Tiempo total: 9 horas (sin paradas).
Punto de partida/llegada: Santuario de Núria.



TEXTO



Txomin Uriarte
(Bilbao, 1942)

Editor de Pyrenaica y presidente de la EMF. Actualmente colabora con EMMOA, la fundación que promueve el Museo del Montañismo Vasco.

MONTAÑAS DEL RIF

A Pablo, que se encargó de hacer que nuestro viaje fuese un éxito agradable.

LA CORDILLERA DEL RIF

El Rif es una gran cadena montañosa que se extiende por el N de Marruecos y que culmina en el pico Tidighin (2456 m). Junto a ella existe otro puñado de cimas que también rebasan los 2000 m, algunas se encuentran en las inmediaciones de la acogedora ciudad de Chaouen. El territorio por el que se extiende esta cordillera reci-

be el mismo nombre y abarca cinco provincias cuyos habitantes son bereberes de lengua tarifit. Muchos de ellos también hablan el dialecto árabe propio de Marruecos y chapurrean francés y español.

La región rifeña, que desde 1912 formó parte del protectorado español, alcanzó su independencia de la metrópoli en 1956. Los vestigios de este pasado colonial todavía se aprecian en algunas costumbres loca-

les, en el urbanismo y en los edificios históricos de los centros urbanos.

El Rif cuenta con dos parques nacionales destinados a proteger su rica biodiversidad: Talassemtane y Alhucemas. El primero fue creado en 2004 y se extiende a lo largo de 58.950 ha pertenecientes a las provincias de Chaouen y Tetuán. Forma parte de la Reserva de la Biosfera Internacional del Mediterráneo, protegida



Macizo del Kelti

Tras ese primer contacto, me dediqué a recopilar información hallándola en una guía editada por Desnivel, en un mapa a bastante escala y en las numerosas páginas web existentes en la red. La conclusión final fue que en el Rif había “mucho material” a condición de que contara con un grupo de acompañantes.

No tardé en encontrar un equipo con el que sentirme a gusto. Primero, Pepe Martínez, con quien desde hace muchos años comparto inquietudes y actividades montañosas, además de beneficiarme de sus cualidades organizativas. A continuación, Jaime Feliú y Santos Herrero, compañeros de correrías en pos de lejanas montañas o de vías nuevas. Los tres aceptaron entusiasmados.

norama circundante; al fondo del valle aún se divisa el diminuto campamento de yurtas donde hemos pasado la noche, mientras que las moles que se elevan sobre nosotros nos advierten incontables que ellas son las protagonistas de este reino. Ernís nos indica que una de estas torres supera ya los 4000 m de altura, pero al preguntarle por el nombre se encoge de hombros. En Kirguistán, no todas las cumbres han sido bautizadas, y muchas ni siquiera conquistadas.

Remontando la fuerte pendiente por terreno erosionado por las nevadas del invierno alcanzamos el punto culminante de nuestro trekking, el paso de Ak-Tör (2 h, 3550 m).

La niebla hace presencia fantasmal entre las grandes cimas y una numerosa manada de yaks se acerca curiosa mientras immortalizamos el momento con una foto de grupo y la bandera del centenario de la EMF. Nos ponemos de nuevo en marcha para abordar el descenso en di-

rección este hacia el profundo valle que se abre a nuestra izquierda, por el que se desploma una torrentera que nace a los pies de un nevero. Por senderos inciertos y en ocasiones campo a través, iremos en busca del mencionado arroyo hasta llegar a su cauce, que acompañaremos a partir de ahora. En las inmediaciones, una marmota se asoma a su madriguera para observar a la inesperada comitiva.

En nuestro descenso nos topamos con un inquietante túmulo construido con

Alcanzando el campamento de Ak-Tör



maderas que asemeja al de las tumbas de los nativos norteamericanos, que gracias a Ernis, sabremos que corresponden a yurtas que fueron recogidas hace varios veranos y que han quedado abandonadas. Siguiendo el cauce de nuestro torrente, tendremos que atravesar algunas campas y terrenos anegados de agua, encontrando esporádicamente alguna flecha roja pintada en grandes piedras, única indicación de la presencia humana en estos parajes perdidos.



Inmediaciones del paso de Asan Rabat

Por senderos inciertos y en ocasiones campo a través, iremos en busca de un arroyo

Tras un continuado descenso, vamos a llanear por una suerte de cordal que separa dos valles, alejándonos del curso de agua que hasta ahora habíamos seguido, y que se desploma por uno de los valles vecinos. Alcanzamos así una humilde casa construida con adobe y tejado metálico, cuyas ventanas son tan solo unos agujeros en la pared tapados con plásticos. Un niño se asoma a la puerta y no acertamos a comprender la decisión de estas personas a la hora de construir su morada en este apartado e inaccesible lugar, salvo quizá el de la calidad de los pastos y el privilegio de constituir en sí misma un mirador de las imponentes montañas que se elevan por encima de los 3600 m de altitud al otro lado de la garganta horadada por el río Murdash (4 h 15 min, 2680 m).

Con la mirada puesta en el vertiginoso desnivel, el sendero llanea progresivamente mientras bordea la ladera hacia el

este hasta cambiar de vertiente, con vistas a un nuevo valle recorrido por un riachuelo hacia el cual vamos a descender. Perdemos altura con rapidez realizando varios zigzags hasta alcanzar el cauce del citado arroyo cuyo curso seguiremos aguas abajo; tras dejar atrás las paredes derruidas de una antigua cabaña y varias cercas para el ganado, llegamos finalmente a la carretera donde nos esperan nuestros vehículos para regresar a Osh (5 h, 2360 m).

Atravesamos el desfiladero del Murdash entre abruptas paredes por donde las aguas embravecidas se precipitan desbocadas, mientras rememoramos los momentos vividos durante estos días por las cordilleras de los montes Alay. Nos miramos sonriendo sin decir nada. Son ya muchos viajes y experiencias juntos y sabemos que todos sentimos lo mismo: una parte de nuestra alma se ha hecho kirguís.

PARTICIPANTES E INFORMACIÓN

Trekking realizado por Ricardo Hernani, José Ramón Etxeberria, Jon Durana y José M^o Torres, en el mes de julio de 2024, desde la ciudad de Osh (Kirguistán). <https://visitalay.com/>

JOSU FERNANDEZ VARONA



Collado de Errozate



Larrunarri

JUAN JOSÉ LOPEZ AZURMENDI



Landmannalaugar, un valle con montañas de colores y aguas termales



Landmannalaugar en Islandia, una tierra llena de contrastes

CHAMONIX- ZERMATT

ALPEETAKO ESKI ZEHARKALDIRIK KLASIKOENA

Alpeetakoa ez ezik, mendiko eskiko munduko ibilaldirik ezagunena dela esango nuke. Izan ere, alpinismoaren bi "hiriburuak" lotzen ditu: batetik, Mont Blancen barrenean dagoen Chamonix, eta bestetik, Cervino eta Monte Rosaren azpiko Zermatt. Horrelako ibilbide ospetsuetan, bide edo aldaera asko sortzen dira. Eskiekin egiteko bi dira ezagunenak: bata, jatorrizkoa, klasikoa deiturikoa, eta bestea Verbierreko aldaera, eskiekin egiteko gehienek hautatzen dutena. Geuk lehenengoari ekin genion.

1. ETAPA: ARGENTIÈRE – TRIENTEKO ATERPEA

Krak! Izotza apurtzearen hotsa: azkenean, hasi gara! Bagoaz!

Atzean geratu dira gaur goizeko urduritasunak, ea ez dugun funtsezko ezer ahaztu motxila astunetan. Atzean geratu dira bezperako hamar orduak kotxean sartuta, Euskal Herriatik abiatuta, Frantzia osoa ezker-eskuin zeharkatzeko. Atzean geratu dira etxekoen herenegungo agurrak. Atzean baita ere, jakina, azken hilabeteetako prestakizunak. Atzean geratu ez direnak ordea, irrika eta sekulako ilusioa!

Argentièreko aparkalekutik teleferikoak airean igo gaitu 2000 metro gorago, 3240 metrora dagoen Aiguille des Grands Montetsen ondoko geltokira. Beraz, hasteko jaitsiera bat dugu, Rognons glaziarretik, eskuinerantz zeharka. Hamaiak pasatxo dira, berandu gabilta; ekin diezaiogun ba!

Krak! Izotza apurtzearen hotsa. Nahiz eta Aiguille Verteren ipar-ekialdeko magaleko elurrek egunsentitik eguzkiaren epela jaso, krakadak entzuten ditugu jaitsierako arrastoan hormatutako koskorak gaingitzean. Tarteka pitzadura batzuk inguratzeak tentuz ibili beharra dugula gogorazten digu. Alegia, berriketa gutxi hemen! Egia esan,

Aiguille du Chardonnet eta Aiguille du Argentièren arteko Chardonneteko harratea



TESTU ETA ARGAZKIAK



Aitor Oiarbide Telleria

Aita-amei esker bihurtu nintzen mendizale txiki-txikitan. Donostiako Loiolako Ametzagaina eta Gazteiz mendi taldeetako kidea naiz. Euskal Herriko mendi eta basoetan ikaragarri gozatzen dut. Era berean, Pirinioetara joan izan naiz maiz, eta tarteka-marteka Alpeetara. Azken bolada honetan gainera, Aritz eta Beñat bere bi semeekin eta Ixonerekin mendi buelta xumeen plazerra berraurkitu dut.



Matterhorn edo Cervinoren azpian

nire artean kezka apur bat sortu dit: "Hau hasiera besterik izanik, nola demontre mol-datuko gara gainerako glaziarretan?".

Tarteka pitzadura batzuk inguratzeak tentuz ibili beharra dugula gogorazten digu

Argentièrako glaziarrean, a zer ikuspegia! Aiguille Verte lerdena (4122 m) eta Les Droitesen (4000 m) iparraldeko horma beldurgarria, laiotza, eguzki-izpirik gabe-koa. Zerbait jan, igoerarako prestatu eta

martxa hartu dugu. Bi zaindari erraldoi balira bezala, Aiguille du Chardonnetek ezkerretik (3824 m) eta Aiguille du Argentièrek eskuinetik (3902 m) mugarrizten dute segidan igoko dugun sakana. 2550 metrotik abiatu gara eskiak bizkarrean, hasierako maldak pikoak dira eta. Geroago, malda etzanagoak hastean, eskiatzen jarraitu dugu Chardonneteko harratera (3323 m) iritsi arte. Jende pilaketa dago bertan, beste alderako jaitsiera oso tentea baita. Gure aurretik dagoen asturiar talde batek rappelatzeko euren soka erabiltzen utzi digu, beraz, ez dugu gure soka motxilatik atera beharrik izan. *Munches gracias!*

Saleinako glaziarren goiko ordekarara atera gara. Hemen erne, senak ezkerretara (iparrerantz) dugun harratera joateko esaten digu, baina ez, Grande Fourche haitza inguratu ondorengo pasabidea da egokia: Fenêtre de Saleina (3265 m). Harrate hau zinez da meharra eta saiheska igarotzera behartzen gaitu, eskiak bizkarrean ditugula. Plateau du Trient zabalean, aldapa samurretan eskiatzen iritsiko gara Trienteko aterpearen oinera. Azkeneko igoeratzeko labur bat eta dagoeneko aterpetxean gaude (3170 m). Ilunabarreko hotza uxatzeko, zein goxo gauden aterpetxearen barruko epelean.



2. ETAPA: TRIENTEKO ATERPEA - CHAMPEX-LAC - BOURG-SAINT-PIERRE

Egunsenti ederra, zerua arras garbia. Aterpe-txearen aurreko zerraz moztutako granitoko gandorrak, Trienteko glaziar-ordekaren korua dirudi. Goiz-albako argi epelek, aurrez aurre ditugun Aiguilles Dorées haitzak gorritzen dituzte, izena eta izana uztartuz.

Zortziak eta laurden aldera abiatu gara, presa handirik gabe, gaurko etapa laburra da eta. Ia dena beheantze. Trienteko glaziarren pitzadurak eta serakak saihesteko, eskuineko ertzetik jaitsi behar dugu, Ecandieseko harratearen azpira iritsi arte. Eskiak motxilan lotuta, igoera labur bezain tentea egin dugu. Nire ustean harrate batera iristea leiho bat irekitzea bezala denez, Ecandieseko harratean (2796 m) ekialderantz egundoko ikuspegia zabaldu zaigu. Jarraian Arpette harana alderik alde jaitsi dugu: lehendabizi elur onaz gozatuz, gero mendi-magala zeharkatzen eta, bukaeran, zuhaixken artean, ahal izan dugun moduan, azken elur-mingainak probestuz. Eskiak bizkarrean, Relais d'Arpette ostatu atseginaren paretik pasa gara. Champexeko lakuaren bazterrean (1482 m) gaurko etapa azkarrari bukaera eman diogu. Bourg-Saint-Pierrera eramango gaituen taxiaren zain, lo kuluxkatxo bat egin dut.

3. ETAPA: BOURG-SAINT-PIERRE - VALSOREYKO ATERPEA

Atzoko etapa samurraren aldean, gaurkoa gogorra da, motxilatzarrekin 1400 metroko desnibela igo behar baitugu. Ahalik eta



Egusentia Valsoreyko aterpetik, urrunean Mont Blanc eta Grandes Jorasses

kemen gehien bilduta, Bourg-Saint-Pierre herrixkatik abiatu gara goizeko zazpiak eta hogeian, eskiak motxilan lotuta eta gure botatzarren pausoen hotsarekin isiltasuna apurtzen. Martigny eta Aostaren arteko errepidea gurutzatu ondoren, Valsorey haranean sartzen den pistari jarraitu diogu. Artzain txabola batzuetan (1840 m) bukatzen da pista, hortik aurrera ordea, ondo adierazitako bidezidorrean ibili gara hego-ekialderantz, denbora osoan erreka eskuinean izanik.

Harana zabaltzen hastean, azti ibili behar izan dugu biderik egokiena aukeratzeko; batetik, gure aurreko taldeak zelatatuz, eta bestetik, GPSak adierazten duenari erreparatuz. Bi orduz eskiak bizkarrean eraman ondoren, azkenean eskiak oinetan jarri ditugu (nire artean, "bazen garaia, dedio!"). 2320 metrora gaude, Mont Velan eta Grand Combin mendietatik datozen errekek bat egiten duten lautadan. Hamai-

ketakoa egin eta 700 metroko igoerari ekin diogu. Hemendik Valsoreyko aterpetxera ez dago galbiderik eta ipar-ekialderantz jo dugu gorantz malda zabalean sigi-saga, bakoitza bere erritmoan. Ordubetean heldu gara aterpetxera (3030 m).

... bat-batean, egundoko elurbizia abiatu da Tseudet glaziarrean behera, sekulako bisuts-hodei bat sortuz. Minutu pare bateko ikuskizun ahaztezina

Arratsalde gehiena aterpetxearen kanpoko aldean eman dugu, ikuspegi pribilegiatuaz gozatzen: urrunean, zer kontrastea, Mont Blancen soineko zuria eta Grandes Jorassesetako mailo beltzak; hurbilago, berriz, Mont Velan (3727 m) galanta dugu aurrean. Azken mendi horretan, bat-batean, egun-





Plateau de Couloir lepotik ekialderantz, lehenengo planoan Sonadongo lepoa eta atzean La Singlaren gandor zerratuaren ingerada

doko elurbizia abiatu da Tseudet glaziarrean behera, sekulako bisuts-hodei bat sortuz. Minutu pare bateko ikuskizun ahaztezina.

4. ETAPA: VALSOREYKO ATERPEA - CHANRIONGO ATERPEA

Zerua oskarbi. Oraindik argitu ez duen arren, gaur ere eguraldi ederra izango dugu. Egunsentiko zeru urdinxka eta arrosarekin batera Mont Blanc mendiguneko tontor-festa ikusi dugu.

Zazpiak bost gutxitan abiatu gara, kranpoiekin 600 metro desnibeleko aldapa pikoari ekiteko. Azkeneko maldak gainera, are eta tenteagoak dira. Bederatziak hoge gutxitan ospeletik eguzkira igaro gara Plateau de Couloir lepoa gainditzean, zeharkaldi osoko garaiena (3664 m). Haral Beste leiho zabal bat ireki zaigu begien aurrean: ekialdean La Singla gandor zerratuaren ingerada nabarmentzen da, atzerago berriz beste hamaika mendi ezezagun. Ikuspegi zoragarria, dozenaka tontor,

gandor eta glaziar, Alpeak bere bertsiorik puruenean.

Gaintxo batean, eskuinean, Biagio Musso bivacco dago, larrialdietarako metalezko aterpe gorri txikia. Gaur, ordea, ez du bezero askorik izango.

Jaitsiera labur batekin Sonadongo glaziarraren goiko aldera heldu gara. Foka-larruak ipini, eta ondo markatutako arrastoa jarraituz, ordu erdi batean Sonadongo lepora (3520 m) igo gara, goizeko hamarrak hoge gutxitan.

Jaitsiera luzea daukagu segidan Mont Durand glaziarrean zehar. Hasieran hego-ekialdeko noranzkoan abiatu gara, eskuin aldera, alegia. Kontua da serakak eta hauen azpiko haitz lerro luzeak saihestu egin behar ditugula. Gainontzean, glaziarraren eskuin aldetik zailtasunik gabeko aldapa leunetan irristatzen gabiltza. Aurrerago ordea, 2730 m inguruko kotan, ernai ibili behar izan dugu, zeharka joanez eta altuera pixka bat irabaziz, glaziarra utzi eta Avril mendiaren ipar-ekialdeko bizkarra gainditzea komeni da eta. Hemendik zuzenean Otemma gla-

ziarretik datorren errekarra jaitsi gara, 2220 metrora, Sonadongo lepotik 1300 metro desnibeleko jaitsiera egin ondoren: ez da txarra!

Etapa bukatzeko, 240 metro inguruko igoeraxoa besterik ez zaigu falta. Malda samurretan gora eta lurmenak saihestuz, ordu bata hamar gutxi aldera iritsi gara Chanriongo aterpera (2462 m). Arratsaldea Gran Combin eta gainontzeko mendiak begiesten eman dugu.

5. ETAPA: CHANRIONGO ATERPEA - NACAMULIKO ATERPEA

Berriz ere, zerua oskarbi: hau dek pagotxa! Artean ondo argitu gabe, ilargitearekin eta jakina, kopetako argiarekin abiatu gara seiak eta erdi aldera. Aterpetik behera doan pistan pixkanaka altuera galduz goaz. Aurrerago, udako bidea utzi eta elurrez hormatutako erreka zulora jaitsi gara (2280 m). Astun zaizkigun eskiak motxila-uhaletatik askatu ditugu, behar den tokian jartzeko; oinen azpian, alegia. Haitzarte honen erre-



karen hondo meharrean aurrera darraigu, Bec d'Epicoune (3529 m) tontor lerdenari begira. Zortzietan, errekaen urtegi nimirnoko presa gaindituta, noranzkoa aldatu, ipar-ekialderantz jo eta aurki Otemma glaziarra aurrez aurre ikusi dugu.

Otemma glaziar luzearen barneko erreka, izotz-burduntziz hornitutako zulo handi batetik irteten da, kondairazko munstro baten ahotzarra dirudiena

Otemma glaziar luzearen barneko erreka, izotz-burruntziz hornitutako zulo handi batetik irteten da, kondairazko munstro baten ahotzarra dirudiena. Berrito ere bidean jarri gara, glaziarraren hasierako aldapa etzanetan gorantz. Monotonoa eta ederra da aldi berean eta gutako bakoitzak bere erritmoa hartu du. Elkarrengandik tartekatuta, haserre gaudela dirudi; ez ba! Kontua

da bakoitza geurean gabiltzala, geure pentsamenduetan murgilduta ibili ahala.

Hamaika eta erdiak aldera glaziar nagusia utzi dugu, glaziarraren ekialdeko adarrean gora egiteko. Beraz, ez gara joango ibilbide honen etapa honetako hurrengo aterpera, Vignettesera, alegia. Zer dela eta? Kontua da duela hilabete batzuk atepoen erreserbak egitean Vignettesen ez zegoela lekurik; horregatik beste aukera bat bilatzen hasi ginen eta Italiako Nacumuliko aterpean aurkitu genuen lekua. Horrela, ibilbide nagusitik desbideratu egin gara Nacumuliko aterpera joateko. Aldapan gora goaz Petit Mont Collon ezkerretara dugula; gure hurrengo mugarría izen bereko lepora iristea da. Aurreko egunetan utzitako eskien arrasto onari eguraldi zoragarri hau gehitzen bazaio, bada, igoera samurra egiten ari zaigu. Aipatutako lepoa gaindituta, zeharka gorantz jarraitu dugu L'Evêqueko leporaino (3382 m). Hara! Dent d'Herens (4171 m) bat-batean azaldu zaigu. Ordu bata eta bost. Atsedean hartuz zerbait jan dugu, edo alderantziz.

Hemendik aterpera arte, jaistea besterik ez da geratzen. Lehenik ekialderantz, Collongo leporaino. La Singla eta Mont Brulék hesitzen duten sakanean, Nacumuliko aterpea antzeman dugu, gure ostatua. Lurmenak saihestuz, jaitsiera erraza egin zaigu. Ordu biak eta hogeita bostean iritsi gara itxura geometriko arraroko aterpera (2818 m).

Arratsaldea aterpearen kanpoaldean eman dugu, eguzkitan goxatzen, La Singla-

Chanriongo aterpean hiru lagunak, Gran Combin atzean



ko gandor luze gorabeheratsuak eguzkia-
ren izpiak sakabanatzen dituen bitartean.

6. ETAPA: NACAMULIKO ATERPEA- ZERMATT

“Last, but not least”. Hau da, azken etapa izanagatik ere, hauxe dela etapa nagusia: hiru lepo igaro behar dira Zermatt-raino iristen den jaitsiera luzearen aurretik. Hortaz, goiz jaiki behar dugu. Zazpiak hogeit gutxitan abiatu gara eta 250 metro inguruko desnibela igoz

gaurko lehen lepora iritsi gara: Collongo lepora (3074 m).

Aurrerago, Chamonix-Zermatt ibilbi-dearekin bat egin dugu berriro. Horrela, Vignetteseko aterpetik atera diren eskia-tzaileen taldeak ditugu aurretik eta atzetik. Segidan, La Vierge izeneko haitzak saihes-teak altuera galtzera behartu gaitu, 2.900 metroraino gutxi gorabehera. Foka-larruekin ekialderantz egin dugu Arollako glaziarren goiko plateau-tik, Mont Brulé-ko lepora zuzenean. Lepora iritsi aurreko azken zati pikoak kranpoiak jarrarazi dizkigu. Gerizpetik eguzkira pasatuz, bederatzi eta

erdietan gaurko bigarren lepoa gainditu dugu (3213 m), begien aurrean beste leiho bat zabalduz: Tête Blanche, Tête de Valpelline eta Dent D’Herens liraina.

...zeharkaldi honen edertasunaren gaina eta bikaina dakusagu: Cervino edo Matterhorn mailo lerdena. Ikuste hutsak ia zirrara orgasmiko bat eragin digu

Otemma glaziarren barneko errekaen hustubidea: munstro baten ahotzarra



Jaitsiera labur batek Tsa de Tsan glaziarra garamatza. Interneten kontsultatuta, glaziarren izen berezi horrek "glaziarren aurreko azken larrea" esan nahi omen du, hizkuntza frankoproventzalean. Foka-larruak glaziarreko ordekan jarri ditugu azken aldiz. Gaurko hirugarren lepora igotzen hasi gara, 450 metro inguruko desnibelera dagoena. Eguzkia jaun eta jabe, eguraldiaz eta aldapa leunen igoeraz gozatzeko gabilta. Bai horixe! Hamaika eta erdiak pasatxo zirenean Valpellineko lepora (3557 m) iristean, zeharkaldi honen edertasunaren gaina eta bikaina dakusa-



Otemma glaziarra iristen

gu: Cervino edo Matterhorn mailo lerdena. Ikuste hutsak ia zirrara orgasmiko bat eragin digu. Zerua zulatzeko moduko ezten zorrotza dirudi. Gainera, 4000ko beste hamaika mendi eder ere ditugu aurrean, esaterako: Dent Blanche, Ober Gabelhorn, Weishorn, Dom eta abar luze bat. A zer nolako mendi festa! Ia 3800 metroko Tête de Valpelline igotzea tentagarria bada ere, uko egin diogu, Zermattera berandu ez iristeko.

Jaitea besterik ez zaigu geratzen, jaitsiera luzea ordea, ia 2000 metroko desnibela duena. Glaziarretako pitzadura eta serakekin tentu handiz ibili behar da, horiek denak ahal dela urruti mantenduz. Lehenik, Stockjigletscher glaziarretik jaitsi gara, ipar-ekialderantz. Aurreraxeago, gure aurrekoen arrastoei men eginez, noranzkoa aldatu eta hegoalderantz jo dugu Tiefmattengletscher glaziarren ordeka batera iristeko. Liluraz jota gaude: era guztietako izozmendi eta serakek begietako gozamenak egiten dituzte. Ordeka horretan ipar-ekialderantz jo dugu berriro, Zmuttgletscher glaziarreko elur-mingainetatik ahalik eta gehien aurrera egiteko, Cervinoaren azpian. Ordu bata inguruan eskiak motxilan lotu ditugu eta Zmutt haranaren eskuinetik beherantz ttipi-ttapa jarraitu dugu. Stafelalpeneko (2200 m) iraupeneko

eskiko pistetan eskiekien aurrera egiteko probestu dugu. Furiko eski-pistetara heldu aurretik oinez ibili gara, eta bukatzeko, teleferikoak eroso jaitsi gaitu herrira. Hiru eta erdietan iritsi gara helmugara. Zermatt herri turistiko eta moñoñoa gure motxila astunekin eta bota baldarrekin zeharkatu dugu. Neka-neka eginda gauden arren, belarri baten eta bestearen arteko tartean ia ez zaigu irribarrea sartzen. A ze poza!!

Zermattetik Chamonixera itzultzeko, guk hirurok taxi-furgoneta batean sartu gara sei nafarrekin, haiek ere pozik, denok berriketa bizian. Horrela, haietako batek Bulgarian mendiko eskia egitea aipatu du, datorren urteko Aste Santuari begira. Bada, agian datorren urtean geu joateko ere ez da txarra, ez?

Iluntzean afaldu aurretik Chamonixen pasieran gabiltzala, nor topatuko eta, hara, Martuteneko David Atorrasagasti. Apal-apal kontatu digu Les Droitesen (4000 m) iparraldeko horma igo dutela, alajaina! Haitzean eta izotzean eskalatu berri dute ipar horma ospel beldurgarri hori. Biba zuek! Hala bada, hori entzuteak gure lorpena erlatibizatzen balio izan digu.

PARTE HARTZAILEAK

Elena Ibabe, Jose Rodríguez eta hirurok.



Empire strikes back bidea (M11, Cogne Aosta, Italia)

NIRE MUGEN GAINETIK

Niretzat, mendian egiten ditudan ekintzak askatasunarekin, errespetuarekin eta enpatiarekin lotuak daude. Egun, Palestinako egoera ikusita, honako hausnarketa datorkit: zertan ari gara? Gizatasuna, baloreak eta etika galdu ditugu? Egoerari muzin egingo diogu? Kirolaren bitartez hitza dugunok ere badugu zeresana; hona hemen neurea: Aski da! Hau jasanezina da.

Behin hori azpimarraturik, goazen harira: zuekin nire aurtengo neguko ibilaldia partekatzea nahiko nuke; Dolomitetan izan nintzen urtarrila eta otsaila bitartean. Azkeneko momentuan erabaki genuen izotzetan eskalatzeko bidaia egitea, bideen baldintzak ez baitziren egokienak, eta horrek zalantzak sortuarazi zizkigun.

Eskalatzeko moduan zeuden bide apurren artean, Paso Gardenako "Hybrid M8+/W16" zen gure helburu garrantzitsuena. Bide horren berezitasun handiena da ez duela apenas heldulekurik pioleta jartzeko. Hori dela eta, zailtasun handia du *friend* bitartez autoaseguratzeko. Horretaz gain, hiru erronka genituen buruan: lasai mantentzea, ho-

tzari aurre egitea eta fisikoki ondo erantzutea. Joan aurretik, egun batzuk lehenago, sare sozialen bitartez ezagun batzuk jakinarazi ziguten izotz faltagatik bertan behera laga zutela saiakera. Guk, ordea, burutu egin nahi genuen.

Bidaian, Logroñoako David Lopez, "Troner" ezizenaz ezagunagoa, izan zen nire sokalaguna. Troner *dry-tooling*-ean aditua da; ezezaguna izan arren, munduko onenetarikoa dela esango nuke. "Hybrid" bidean esaterako, Troner di-da heldu zen zati gogorrenera eta azkar gailendu zuen. Hori ikusita, neure artean pentsatu nuen hain zaila ez zela izango. Zelako ezustekoa berriro ere! Bide hark baieztatu zidan Tronerren maila. Azkeneko argi izpiak izan genituen ikusgai jeitsi ginenerako.

TESTUA ETA ARGAZKIAK



Josu Merino Ruiz
(Elgoibar, 1971)

Mendiko kirol-teknikaria eta suhiltzaile ofizios. 30 urte baino gehiago daramatza eskalatzeko, eta Gipuzkoako mendi eskolan irakasle moduan ere aritu izan da. Kurrikulumean hainbat jardura esanguratsu ditu, Patagoniako Cerro Torreko *Ferrari* bidea esaterako. Eskalatzeko leku kuttunak ditu Ordesa, Picu Urriellu, Montañesa edo Marbore besteak beste.



rrik nuen, baina azkenean Tronerren atzetik eskalatu nuen. Ez naiz damutzen; bigarren zatia “Ringo M8” egitea baitzen. Bide hori ez da arriskutsua, *parabolt* edo seguru finkoak dituelako, baina fisikoki exijentea da. Tronerri igotzen ari zela helduleku bat apurtu zitzaion, eta ondorioz ezin izan zuen bistaz kateatu.

Jarduera haren ondoren, izotzaren baldintza eskasak zirela eta, gure bidaia laburtzea erabaki genuen, hegazkin txartela aurreratuz. Beraz, bostgarren eta azkeneko eguna geneukan aurretik. Paso Gardenera bueltatu ginen “Space Shuttle M9-” bidera. Paretara iritsi orduko ikusi genuen beste bikote bat ari zela eskalatzen. Gu prestatzerako, haiek gora egin zuten, eta ondoren gu abiatu ginen. M9- egin ondoren, bikotea harrapatu genuen, eta Tronerrek proposatu zidan haien zain ez egotearren, bidea beste toki batetik amaitzea. Zailtasuna handiagoa zen, baina aldi berean erakargarriagoa. Hurrengo egunean, traste guztiak jaso eta Milan aldera abiatu ginen aireportura. Oso nekatuta geunden, baina pozik.

Txundituta geratu nintzen nire sokakidearen gaitasunarekin: guk dakigunez, bistaz egitea erdietsi duen lehena izan da

Hurrengo egunean, buruan geneukana honako hau zen: eta orain zer? Zazpi egun ditugu aurretik, eta lehenetsi genuen erronka handiena jada lorturik dugu! Egunean eguneko egitea erabaki genuen, gogoa eta gorputzaren egoeren arabera.

Niretzat, mendian egiten ditudan ekintzak askatasunarekin, errespetuarekin eta enpatiarekin lotuak daude

Bigarren egunean Paso Gardenera bueltatu ginen. Bertan, bide bat eskalatu genuen, errezagoa eta motzagoa. Hurrengo egunean, eztabaida izan genuen: nik atsedean eguna proposatu nuen, baina Tronerrek eskalatzea nahi zuen. Azkenean, berak proposaturikoa egin genuen; “Fannes M8” bidea eskalatu genuen. Hori bai, bidea egin aurretik, abentura bat izan genuen. Bidean galdu egin ginen. Ondorioz, eguerdiko ordu bietan hasi ginen eskalatzen. Oso berandu zen eta nik aurreikusi bezala, gabaz jeitsi ginen.

Laugarren egunean, beste bailara batetara joan ginen, Bolzanotik ekialdera, Val de Gares deituriko bailarara. “Valbone Ice Fall M11+” igotzea zen asmoa; klasiko bat, zailtasun horretan munduko lehena. Nik atsedean nahian jarraitzen nuen eta egun hartan aseguratzeko asmoa baka-

Elementaireilchen bidean (M8 Kandersteg, Suiza)



Aste batzuen ondoren, etxean, nekea halamoduz dominaturik genuen, eta oraindik negu bete-betean ginela ikusita, izotzetara beste txango bat egitea erabaki genuen. Oraingoan, Cogne aldera joan ginen, Dolomitetakoa mendebaldera; "Empire Strike M11" zen helburua. Heldu bezain pronto, bidea ikustera hurbildu eta segituan konturatu ginen beroa egin zuela aurreko asteetan. Ondorioz, izozturiko ur-jauziak puskaturik zeuden. Hala ere, hurrengo egunean han ginen: lehenengo luzeak oso izotz gutxi zuen, eta nahiz eta zati gogorrena izan ez, izotz faltak arreta handia eskatu zigun. Bidearen gakoa bigarren zatia da, M11 maila du, eta desplome handia. Tronerrek denbora asko egin zuen zati hori eskalatzen, ia-ia ordubete. Txundituta geratu nintzen nire sokakidearen gaitasunarekin: bistaz egitea lortu zuen, eta guk dakigunez, beste inork ez du hori egitea erdietsi. Agian bera izan da lehena. Zorionak Troner!

Aurreko bidaiaren bezala, gure erronka eta helburua lehenengo egunetik eginda genuen. Berritua ere, eztabaida baten ondoren, Tronerren proposamenak egin zuen aurrera: Suizako Kandersteg herrira joango ginen. Lagun ezin hobea eta kirolzale miresgarria izan arren, David burugogorretan burugogorrena da. Ez nuen irabazi eztabaidarik bidaiari haietan.

Suiza zeharkatzeko nahiko lan izan genuen, mobilean daturik ez genuen, Europar Batasunetik kanpora dagoelako, eta azkeneko momentuko erabakia izanda ezin izan genuen hori kudeatu. Pantala-irudi batzuk egin, bidea buruz ikasi eta

harutz abiatu ginen. Eskerrak lo egiteko tokian wifia izan genuela. Oztopoak oztopo, heldu ginen Kandersteg-eko "Max 3" bidera. Chamonixen lana egiten duen lagun batek aurretatu zigun Max 3an apurtua zegoela goi parteko azkeneko izotz zatia. Hori jakinik, Troner are motibatuagoa zegoen.

Egunguentirako orma oinean geunden, eta bai, egiaztatu genuen izotz zati handi bat falta zela. Lehenengo luzea ere egoera kaskarrean zegoen izotz faltagatik; ez zegoen erraza. Astiro-astiro, azkeneko luzera heldu ginen. Han, ormako desplome ikaragarriak eta harrietan zeuden marka gorriek (pioletak kokatzeko markak ezarrita zeuden) txunditu gintuzten. Gure ustez, marka gorriak mendian onartezinak dira, abentura kutsua eragozten baitute. Zailtasuna kentzen dio, eta bideak xarma galtzen du. Kirol-eskaladako edo *Drytooling*-ean eskalatzeko sektore batean topatzea agian onargarria izan daiteke, baina mendia ez da rokodromo bat.

Marka gorri haiek erabiliz, eta parabolten bidez aseguratutako, Troner segituan iritsi zen puskatutako azkeneko zatira. Hura gainditzea posible izango ote genuen?

Gure ustez, marka gorriak mendian onartezinak dira, abentura kutsua eragozten baitute


Bidea eskalatzeko izotza ez egoteak lanak gehitu zizkigun, eta arrisku handirik ez hartzeko, lehenik paraboltetara joan ginen. Ondoren, aurrera egiteko beste bide bat ireki behar izan genuen. Troner aseguratzen ari nintzen bitartean, desplome handi hari aurre egiteko estrategia egokiena zein izan zitekeen hausnartzen egon nintzen. Nik Daviden modura ezin nuen egin, ez naiz gai horretarako, eta jauzte eta zintzilik geratzea ez zen aukera bat. Egoera hartatik irtetzeko poleatrakzio bat egitea eskatuko liguke; lan ikaragarria. Hausnartu ondoren, arrisku gutxien hartzeko modua bidea zatika egitea zela ondorioztatu nuen. Hala izan zen. Gailurrean bat egin genuenean, pozez zorutzen elkar besarkatu eta zoriondu egin ginen. Lan handia eskatu zigun erronka bete genuen eta harro geunden.

Kontuak kontu, ezin genuen erlaxatu; handik jeistea ere ez zen gauerdiko ahuntzaren eztabaida. Izotza puskatutako tokian, sabai hartan, bi torloju sartu behar izan genituen paretara hurbiltzeko, soka ez baitzegoen paretatik gertu: soka paretatik aldenduz gero rapelatzea ezinezkoa izango litzateke. Lan horiek guztiak hartu ondoren, heldu ginen beheara. Bertan laga genuen material guztia hurrengo egunerako; "Elementeilen IV M8" bidea egitera bueltatzea nahi baikenuen.

Azken bide hori askoz errazago egin genuen, traba handirik gabe; iluntzean bertan Italia aldera jo genuen, hurrengo eguerdian hegazkina hartu behar baikenuen. Egia esan, bi txango zoragarri izan genituen: toki paregabeetan eskalatu, proposaturiko erronkak bete eta gure lagunartea estutzeko aukera izan genuen.

Wild grisenche bidea (M9, Cogne Aosta, Italia)





Ezkerrean Hybrid bidea (M8+) eta eskubian Eisfall bidea (M7, Paso de Gardena, Dolomitek)

BALELLAZA ORRATZAK BISAURIN "AZKEN POETA"

Idaztea maite dut, are gehiago mendiaren inguruan edo mendiarekin lotutako istorioen inguruan. Zeregin horretan, ordea, ez naiz lorpen indibidualak gehiegi azpimarratzearen aldekoa, lorpen horien atzean begi-bistatik ostenetzen diren istorio txikien bilketan aritzea askoz interesgarriagoa begitantzen zait. Ildo horretatik, inoiz esan didate nire istorioak paperean izkiriatzeko baino, akaso besteen abenturak kontatzeko jaioa naizela. Ez dakit ba, ala ote da? Eta horrela balitz ere, istorio guztiak paper zati batean jasotzeko jaioak dira?



TESTUA ETA ARGAZKIAK



Karlos Aretxabaleta "Txapel"
(Ruanda, 1990)

Mendiak igotzea eta eskalatzea du gustuko; Afrikakoak atzean utzi zituen aspaldi. Batzuetan poesia eskaladarekin uztartzen du; beste batzuetan, iritzia poesiarekin, zein poesia errelatuekin. Sarritan, ordea, dena hankaz gora jarri eta bidea jarraitu besterik ez du egingen; sormena eta arkatza aldean, badaezpada ere. Beste batzuen artean, "Izarrak eta Haitzak" liburua ere egilea.

<https://karlos.eus>
Instagram - Facebook
Txapel_Aretxabaleta

Lagun batek behin esan zidan hobe nuela mendietara jotzea istorio onak bizitzeko, biltzeko eta idazteko. Tira, barkatuko didazue lizentzia, baina bere aholkuari kasu eginez, baita menturaz ere, horixe bera kontatzera natorkizue gaurkoan: Bisaurin inguruan Ander Ugarik eta biok idatziko istorioa.

Honezkero konturatuko zinen lerro hauen aitzinean erabilitako izenburua xelebrea dela. Iradokitzailea akaso? Begiradaren arabera beharbada aitor geniezaioke mendi bati, poema bati edo izen bati balio jakin bat, ez duzu uste? Onartu behar dizut mendi-eskalada edo alpinismoari poesiaren tankera hartu nahi izan diodala noizbait -jarduera biak artetzat hartzen direlakoan-, akaso paper zuri baten aurrean egotea bezala gerta dakiokelako eskalatzailari; bertso lerroak eta irudi literarioak han-hemenka erabili nahia, alegia. Ez dakit alegoria bera ulertzen den. Ez dakit gehiegi esatea ote den. Ez dakit harri-poetak ote garen. Ez dakit...

Balellazako orratzetan ireki genuen lerroaren izena "Azken Poeta" da, munduan zehar harrian poemak idazten aritu eta aritzen diren guztien omenez. Xumea da oso. Txikia. Are txikiagoa tamainako paraje eta eskalada lerro bikainekin alderatuta. Etika eta zentzuz jokatu nahi izan genuen. Lortuko ote genuen? Hori zen gure esperantza, jadanik nahiko arrotzak baikara tankera horretako txoko galduetan. Edozelan ere, asko bete gintuzten lerroak eta inguruak.

Balellaza orratzak Bisaurin mendiaren (2670m) ekialdean kokatuta daude, Bernerako portua eta Lizarako aterpetxearen artean hain zuzen. Halaber, orratzek, ezpata baten sorbatza balira bezala, ertz zorrotza osatzen dute, baita Bisaurinen kontrahorma Mistresa izeneko lautadarekin elkartu ere. Leku ezaguna den arren, basatia da oso eskalatzaila eta mendizale ororen begietara. Oinez hasi eta ordu bete inguru kostako zaizu ertza bera antzema-tea, eta ia bi orduko ibilaldia egin beharko duzu eta 600 metroko desnibela gaintu orratzez, kaskoz eta dorrez osatutako zirku zoragarri horretara heltzeko. Lasai, ongi nabil esaten baldin badizut ibilaldiak berak asko merezi duela, eskalatzeko ez bada, jenderik gabeko eremu erromantikoan murgiltzeko sikiera.



1- Errapela 4. Bilera - 4. Bilera Azken luzeari ekin aurretik

Buruak diost zerbait sakonagoak bultzatzen gaituela mendian gora aritzera; badaezpada ez diezaiozun izenik jarri oraindik.

Erromantikotasun puntu horrek eraman gintuen beharbada hango hormetara. Zerk bestela? Mikel Saez de Urabain eskalatzailak duela ez asko paraje horren berri eman zuen bere blogean, eta, gauza askoren artean, akaso nolabaiteko poetikotasunez, lekuaren magiaz mintzo zen; tristezia zantzez ziprztinduta, ingurua apurka-apurka eskalada lerroz eta gizakiaren presentziak betetzen hasia dela aitortzen zuen arren. Ekaitz Maiz, Arkaitz Yurrita, Mikel Saez bera, J.P Rio etab. aitzindariak izan dira inguruko hormetan, bada, ez zitzaigun erreferentzia hobearik bururatzen parajea ezagutzeko eta harrian gure poema izkiriatzeko.

Erreferentziak argi genituen, baina zerk motibatu gintuen bide berri bat irekitzera? Ez dakit eskalatzaila behar baino gutxiago egiten ote dizkiogun horrelako galderak geure buruari. Berekoikeriaz mozorrotutako autokonplazentziak? Egoak? Balizko harrotasunak? Abentura edo harri goseak? Erronkak? Arriskuak? Zerk baina! Urte askoan George Malloryren "Mendiak eskalatzeko ditut bertan daudelako" esaldi





Lehenengo bilera

ospetsu hura kasik barruraino iruntzi dugula esango nuke, ozta-ozta dogma bihurtzeraino. Ez dut handiustea izan nahi, baina buruak diost zerbait sakonagoak bultzatzen gaituela mendian gora aritzera; badaezpada ez diezaigun izenik jarri oraindanik.

Bestalde, argi dut eskalatzaile eta mendizaleok, oro har, pribilegiatu hutsak garela. Aberatsak, alegia. Orain hamabost urte Boliviako Ipar Potosi eskualdean egon nintzenean aisialdiaren pribilegioaz ohartu nintzen. Han, tokitan, 4000 metrorik gorako mendiez inguratuta, aisialdia bestelakoa zen.

Akaso umetako amets bat egia bihurtu nahi izateak ekarri gintuen Bisaurinera, edota aurretik aipatutako zergati guztien nahaste-borrasteak. Erantzun argirik gabeko hainbeste galdera erretoriko oka egin eta gero, Alfonso Garcíaren "Una mirada atrás: el arte de equipar" (2024, Kutunka films) dokumentala ikusteko grina inoiz baino gehiago piztu zait. Ziur nago Iñaki Markok, Guillermo Bañalesek, Aritz Apariciok eta J.M Hernandezek zer esan handia dutela afera honen inguruan. Ba al dira horiek eta beste gutxi batzuk -Mikel Zabalza, Sonia Casas, Maialen Rojo, Pou Anaiak, Silvia Vidal, Ekaitz Maiz, Ibon Mendia, Tasio Martin, Joseba Iztueta etab. kasurako- "azken poetak"?

Ez dira gutxi Lizarako aterpetxetik hormarainoko bidean geure buruari egin genizkion galderak. Hala, oinez hasi orduko determinazioz jantzita geunden arren, mendian gora egin ahala zalantzek biluztu gintuzten emeki-emeki. Baliozko zerbait egitera goaz? Etikaz jokatu nahi dugu, baina zer etika? Harria zulatzerik

bai? Honekin guztiarekin zein da gure benetako helburua, jendeak bidea errepika dezala? Eta inork ez balu errepikatuko, zenbat arduratuko liguke?

Kaikuak! Nik uste nuen txorien txorrotxioekin eta errekaen soinu gozoarekin konturatu ere ez ginela egingo tankera horretako galderekin. Eskerrak han goian, noizbait eta nonbait, arestian

3. Luzea zabaltzen - Taladroa, mailua, materiala...



aipatutako galdera eta zalantza guztiak erantzi genituen, eta abenturaz bete-betean gozatu genuen. Badiotsut, zenbat eta gorago egin mendian, gero eta gehiago arindu genuen aldean generaman zama; literalki 17kg inguru igo genituen bakoitzak, baina basozainen aterpetxean bizpahiru kilo kendu genituen motxiletatik; bestalde, metaforikoki, hainbeste gauetan izerdia eragin zigun horma eta lerroa ikusteak bizi-bizi igotzen lagundu zigun Ugari eta bioi.

Ez nioke errelatoari poetikotasun gehiegi eta gehiago erantsi nahi ez dakizun nekagarria egin, baina Balellazako orratzen oinarria heldu ginenean mutu geratu ginen nire sokakidea eta biok. Argazkietatik besterik ez genuen ezagutzen paraje hark hitzak ostu zizkigun nolabait. Bada, isil-isilik eta distantzia jarrita gure artean hurbildu gintzaizkion hormari.

Eskalada lerroa etxearen epeletan aztertzeko aukera izan genuen, bai, baina behin katu oinak eta material guztia jantzita, epeltasun hori gugandik ihes egiten antzeman genuen hormari lehenengo metroko irabazi ahala. Ez zegoen atzera bueltarik; buruari, behintzat ez genion horretarako betarik eman.


txi sartzen saiatu ginen, pausu gogorrek babesteko eta lerroaren norabidea ziurtatzeko adina. Hala ere, horiek esanda, ez dakit, gure ahuleziak eta mugak tarteko, behar baino gehiago zirikatu ote genuen horma gaixoa.

Zorionez, gomuta horiei geroxeago zabalduko genien bidea, izan ere, behin tontorrera heldutakoan zorionerako uea besterik ez genuen probestu. Isiltasun une gozoak eta txirularen akorde askeak aitzinean aipatutako poetikotasun hortaz jantziak barneratu genituen. Sarri asko, eskalatzaile guztiok egin ohi dugula pentsatzea gustatzen zait, alegia, instant batez bada ere, tontorrean edo bidean bizitzen ari garen esperientzia gure oroimenean kuxan, altxor kutxan, kapsulatzeaz ari naiz; kaskoan betiko gordetzea, alegia.

Horiek horrela, azken hausnarketa bat partekatu nahiko nuke zurekin: mendizaleok egiten dugun jarduera egiten dugula, bizitzan lehenengoz zein azkenengoz, etxerako bidean goazenean etorbide luzeetan barrena azken eguzki printzak lagun, edateko modukoak diren mendi-oroitzapenak dastatzea baino bertso lerro hobea gorik al dago?


INFORMAZIO OSAGARRIA

Herrialdea: Aragoi / Aragües del Puerto
Zailtasuna: 240m 6c (6b obl.) MD+
Tontor eta leku izenak: Balellazako Orratzak / Bisaurineko Kontrahorma
Distantzia: 9,68 (1300 m ~\+)
Jarduera: 2 hormaraino / 5° eskalada / 3° eta erdi tontorretik kotxeraino.
Ingurunea: Lizara -Bisa Bisaurin
Erreferentziak: Lizarako Aterpetxean + Wikilock



Edateko modukoak diren mendi-oroitzapenak dastatzea baino bertso lerro hobea gorik al dago?

“Dernier Diosaure” bidearen aldamean lerro natural eta zentzuzkoa antzeman genuen Internet bidez lortutako argazkietan. Aldamenekoekin konparatuz gero, zailtasun gehiago eskaini zitzakeen bidea begitandu zitzaigun, J.P Riok bere egunean lerrorik logikoenak hautatu baitzituen bere “harri-olerkiak” irudikatzen. Edozelan ere, zorionekoak gu horman gora eta gora egiteko beta eskaini zigulako. Luzez luze gora egiteari ekin genion, tarteka -gure uste apalean- 6b eta 6c-ko zailtasunak gaindituz harik eta ia 200 metroko erdiko orratzaren tontorreraino iritsi arte. Azkenean, plakak, diedroak, organo tutuak eta arrakalak babestuz sortu genuen “poema”. Material finko gu-



CUMBRES A VISTA DE GEÓLOGO (III) ANBOTO

TEXTO Y FOTOS



Javier Arostegi
(Portugalete, 1953)

Arturo Apraiz
(Amorebieta, 1967)

Luis Miguel Martínez-Torres
(Bilbao, 1957)

Profesores del departamento de Geología de la UPV/EHU con una dilatada experiencia en la docencia y divulgación de la Geología. Si la montaña no los llevó a la Geología, la Geología sí los ha llevado a conocer numerosas cimas de la Cuenca Vasco-Cantábrica, Pirineos, Sistema Central, Sierra Morena e incluso de Hawaii, Tanzania, Guinea Ecuatorial, Bolivia o el desierto de Mojave.

Al igual que muchos montes de roca desnuda diseminados por toda Euskal Herria, el Anboto (1331 m) se originó hace 110 millones de años a partir de un mar tropical que cubría la Cuenca Vasco-Cantábrica. Durante un periodo de 10 millones de años se formaron las calizas arrecifales urgonianas, con el Anboto como una de sus mejores expresiones. A continuación, describimos los rasgos geológicos más característicos de la ascensión a una de las moradas de Mari, la dama del Anboto.

ITINERARIO

Partiendo de la iglesia de Arrazola, el recorrido atraviesa varios conjuntos de rocas sedimentarias: al comienzo, la Formación Durango; el Complejo Urgoniano a lo largo de la calzada del siglo XVI de Errekaundi y en el ascenso previo a la cumbre; finalmente, la Formación Balmaseda a la vuelta, en la pista que une Pagazelai con Zabalandi.

Desde el inicio, al dirigir nuestra mirada a la cumbre, el contraste de colores es muy evidente a consecuencia de las diferencias litológicas. Los materiales detríticos (areniscas y lutitas)



Contacto mecánico entre las calizas del Anboto y la Formación Durango, desde Arrazola

de la Formación Durango cubiertos de vegetación sobre un relieve suave y las calizas urgonianas aflorando desnudas y generando un relieve abrupto.

BARRANCO DE ERREKAUNDI

Entramos en el reino de las calizas urgonianas. Al principio, en el talud, observamos un afloramiento que contiene algunas capas onduladas. Estas ondulaciones corresponden a bloques de sedimento redepositados poco después de su precipitación, cuando no estaban del todo consolidados. Algunos estratos corresponden a calcarenitas, unas areniscas formadas por granos de caliza y abundantes fragmentos fósiles, cuya textura granulosa se aprecia deslizando la mano por su superficie. Se depositaron en un medio marino muy agitado y de alta energía, en una rampa con cierta pendiente y al pie de los arrecifes abiertos al mar.




Anboto desde Udalatx con interpretación

El camino discurre por ambas márgenes del arroyo Errekaundi hasta alcanzar un hayedo trasmochu y los restos de varias carboneras. A la salida del bosque, reaparece la mole del Anboto que da la impresión de poder alcanzarse con la mano.

LADERA SUR. FÓSILES URGONIANOS

Llegando a Zabalandi nos encaminamos hacia la cumbre por la fuerte pendiente de la ladera S. En la superficie de

las rocas observamos a simple vista diferentes fósiles que habitaban el mar tropical urgoniano. Los más representativos son los rudistas del género *Toucasia*, moluscos bivalvos que aparecen en las formaciones urgonianas de toda Euskal Herria. Las formas que se aprecian corresponden a diferentes secciones de su concha con forma de cuerno. Vivían en compañía de corales y otros bivalvos (*chondrodonta*) manteniendo contacto con el sustrato a través del vértice de su concha.



Calcarenitas y calizas resedimentadas al inicio de la calzada de Errekaundi



Fósiles urgonianos en la ladera SO del Anboto

CUMBRE DEL ANBOTO

Desde esta extraordinaria atalaya destacan por su color gris claro innumerables cumbres formadas por calizas urgonianas. Todas se formaron en un ambiente dominado por un mar tropical. Es lo que, en ocasiones, se ha venido en llamar la "Euskadi tropical", aludiendo a las condiciones ambientales que reinaban en ese océano durante el Aptiense (117 Ma.) y el Albiense (107 Ma.).

Estas elevaciones urgonianas están frecuentemente separadas por otras rocas de naturaleza detrítica, areniscas y lutitas, principalmente, depositadas en los surcos existentes entre las calizas. Por ellos circulaban corrientes fluviales que depositaban material erosionado en el continente. En el tramo entre el bosque y Zabalandi aparece este tipo de litología.

Cumbres urgonianas de Duangaldea




ARENISCAS. FORMACIÓN BALMASEDA (COMPLEJO SUPRAURGONIANO)

Para regresar a Arrazola tomamos la ruta que desciende del Anboto en dirección Urkiola por Pagazelai. De vuelta hacia Zabalandi, podemos observar las areniscas de la Formación Balmaseda. Superficialmente están teñidas de marrón rojizo a consecuencia del material arcilloso, pero al cortarlas son gris-blanquecinas. Su composición es cuarcítica y, si nos fijamos, apreciamos zonas oscuras difusas, embebidas en una pasta mucho más clara. Esta textura se debe a la actividad de organismos vermiformes que vivían en el fondo del mar y mezclaban el sedimento oscuro, aún no consolidado, con la matriz clara. Este proceso es denominado bioturbación y es fruto de la nutrición y desplazamiento de los gusanos.

ANBOTO: MAR TROPICAL EN EL QUE FLORECIÓ LA VIDA

Durante el Aptiense - Albiense, la separación entre las placas tectónicas de Iberia y Eurasia generó el hundimiento progresivo del fondo de la Cuenca Vasco-Cantábrica, provocando la inundación de amplias zonas emergidas. En esta región intertropical, de clima cálido y húmedo, se desarrollaron extensas plataformas marinas de muy poca profundidad. Al hallarse cubiertas por aguas que rondaban los 25°C, contaban con multitud de arrecifes y una enorme diversidad de formas de vida entre las que destacaban rudistas y corales. Además, la comunidad microbiana era muy abundante y contribuía de manera sustancial a la precipitación de carbonato cálcico.




Relaciones laterales de la plataforma marina urdogana

ESTRUCTURA DEL MACIZO DE ANBOTO


Una vez en Zabalandi, nos acercaremos a la modesta cumbre de Andasto. Desde aquí, hacia el E, contemplamos el Udalatx, otra gran mole urdogana, y una panorámica bastante completa del Anboto y los terrenos circundantes. Hacia el N, la Formación Durango, y, hacia el W, las areniscas de la Formación Balmaseda. Éste es un lugar inmejorable para comprender la estructura del Anboto.

Al igual que durante la formación de los Pirineos, todas las rocas del área del Anboto se deformaron a consecuencia de la colisión entre Iberia y Eurasia. Los estratos se inclinaron dando lugar a pliegues y fallas. Ese colosal empuje orogénico levantó las formaciones rocosas, al tiempo que la erosión barría grandes espesores de roca ya consolidada, posibilitando el afloramiento de otras más profundas y la actual configuración de las cumbres. El empuje terminó por romper las for-



Estructura del Anboto, un efecto del plegamiento orogénico

maciones rocosas originando una falla inversa, haciendo que las calizas urdoganas del Anboto se superpusieran sobre las rocas de la Formación Durango que eran más modernas y, originalmente, se hallaban por encima.



Recreación del mar urdogano hace 110 Ma

NUESTRA HISTORIA (XI): NUEVOS HORIZONTES



En la cumbre del Shakhaur, primer *siete mil* vasco (G. Ariz)

Tras dejar un gran balance de su gestión, Paco Iriondo se despedía del cargo en Elgoibar el 1 de febrero de 1976, cediendo la presidencia del montañismo vasco al tolosarra Antxon Bandrés.

El sobrino nieto del histórico fundador de la Federación accedía a esta responsabilidad en unos momentos políticos de gran inestabilidad. Hacía poco más de dos meses que había muerto Franco y todos los sectores sociales del país esperaban expectantes ante la que se vaticinaba una nueva etapa de la historia.

Haciendo honor al empuje juvenil de la nueva directiva, el presidente tenía 27 años, en la primera asamblea, celebrada el 24 de octubre de 1976 en Gernika, se aprobaba una serie de medidas que bien podían calificarse como rupturistas: se instauraba un carnet propio para la Federación Vasca, se admitía el ingreso del club Auñamendi de Iparralde y se comprometía a redactar las comunicaciones oficiales en euskara y castellano. Pero el acuerdo que más controversias crearía, entonces y en años posteriores, fue la aprobación de universalizar a todos los federados la suscripción a Pyrenaica.

Esta efervescencia federativa contrastaba con los datos de montañeros federados, que descenderían hasta la mitad en los siguientes cuatro años a causa de la migración de muchos jóvenes hacia las actividades políticas.

DE LOS ANDES A ALASKA

Mientras tanto, el montañismo activo estaba dando pasos firmes hacia la modernidad. Tras la histórica expedición de 1967, los vascos iban a retornar a las cordilleras americanas con proyectos muy vanguardistas. En 1975, K. de Pablo, J.A. López de Castro y E. Hernando, junto al catalán Jon Hugas, tenían que encajar la frustración de retirarse del Pucahirca a pocos metros de la cumbre. Por esas mismas fechas, Zabaleta, Chocarro, Gallardo y Uriarte lograban completar la primera ascensión a la arista NNE del Pucaranra.

Los mismos protagonistas del Pucahirca, junto a Manu Uriarte, se volverán a encontrar al año siguiente en Alaska, al pie del imponente espolón Cassin del Mckinley. Lo intentarán hasta que una avalancha les arrastra y tienen que abandonar para poder salir vivos.

Tendrán que pasar seis años para que volvamos a encontrar a montañeros vascos al pie del Cassin. Son Mari Abrego y Martín Zabaleta. Su escalada por el espolón va a ser una definición de lo que es el puro estilo alpino. Después de tres vivacs, la cordada

TEXTO



Antxon Iturria
(Donostia, 1948)

Montañero y cronista de montaña, ha escrito miles de artículos y una docena de libros, entre los que destaca su trilogía "Historia testimonial del montañismo vasco". Actualmente es miembro de la Fundación EMMOA para la creación del Museo del Montañismo Vasco.

vasca consigue poner pie en la cima de McKinley, soportando temperaturas inhumanas. Era 22 de junio de 1982.

